



Eskolak behar dituen **irakasleak**

41. ZK - 2013KO ABENDUA

IDEA

NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUAREN ALDIZKARIA

41. ZK - 2013KO ABENDUA

IDEA

NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUAREN ALDIZKARIA

IDEA

41- ZK - 2013KO ABENDUA

Nafarroako Eskola Kontseilua

Azalaren irudia:

Carlos Virto Catalán

Corellako Arte Eskolako Publizitate

Grafikako 2.eko ikaslea

Lege gordailua:

NA-1482/2006

4

AURKEZPENA

- **José Iribas Sánchez de Boado**, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilaria.
- **Pedro González Felipe**, Nafarroako Eskola Kontseiluko burua.

XIV. JARDUNALDIA: ESKOLAK BEHAR DITUEN IRAKASLEAK

8

Elkarrizketak (Nuria Morales Benitok eginak)

- **Francisco López Rupérez**, Estatuko Eskola Kontseiluko burua.
- **Jesús Manso**, Hezkuntzaren Politika eta Teoriako irakaslea. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.
- **Miguel R. Wilhelmi**, NUPeko irakaslea y **Aurora Bernal**, NUKo irakaslea.

16

Txostenak (Testua: Nuria Morales Benito)

- *Espainiako irakasleen prestakuntza birpentsatuz: gure mugez harago begira.*
- **Jesús Manso**, Hezkuntzaren Politika eta Teoriako irakaslea. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.
- *Irakasleen hasierako prestakuntza*, **Miguel R. Wilhelmi** eta **Aurora Bernal**.

22

Mahai-ingurua: (Testua: Nuria Morales Benito)

- Eskolak behar dituen irakasleak,
Isabel Beltrán, **Pedro Baile**, **Ricardo Abete**, **Juan Carlos Ciria**.

IRAKASLEAK. PRESTAKUNTZAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEEN IKUSPEGIA.

26

- *Nafarroako irakaskuntza itunduko irakasleen egoera*,
M^a Paz Murillo, sare itunduko irakaslea.
- *XXI. mendeko irakasleak*,
José Miguel Gastón eta **Amaia Zubieta**. STEE-EILAS sindikatua.
- *Nafar irakasleriaren gaitasun-prestakuntza*,
Isabel Górriz Noáin eta **Javier Izcue Argandoña**.
Hezkuntza Departamentuko Prestakuntzaren eta Kalitatearen Atala.

NAFARROAKO ESPERIENTZIAK.


36

- *Prestakuntza esperientzia bat: hezkuntza emozionalerako coachinga*,
José Azpirotz Zilbeti eta **Javier Izcue Argandoña**. Prestakuntzaren eta Kalitatearen Atala.
- *Ikasgela, tutoretza eta sustatu beharko liratekeen gaitasunak*
Juan Carlos Ciria, Tuterako ETI IIPko zuzendaria.

IRAKASLEAK. IKUSPEGI AKADEMIKOA

44

- *Irakasleei IK Tetan prestakuntza ematea TPCK ereduak abiatuak*, **Angel Sobrino irakasle dk.**,
Nafarroako Unibertsitatea eta **Hugo Tapia irakasle dk.**, Universidad Católica del Norte.



AURKEZPENA

José Iribas Sánchez de Boado

Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilaria

Hezkuntzaren munduak pizten dituen intereseko gai handien artean, are gehiago, gure hezkuntza sistemaren zutabeen artean, eskola arrakastan duen eraginatik benetan garrantzitsua den bat identifikatu dugu: irakasleen eginkizuna.

Era askotako ikerketa ugari daude hezkuntza sistemaren edo hezkuntzaren beraren hobekuntzaren inguruan, zerbitzu publikoa eta soziala den heinean, eta gai honen gaineko bibliografia zientifikoa anitz ere bada. Denak ailegatzen dira aho batez ondorio batera: irakasleak direla hezkuntza hobetzeko “giltza”.

Behin eta berriz ikusi da ikasleen prestakuntzan eta ikasketen errendimenduan eraginkorrak suertatzen diren bi poloren garrantzia: gurasoak eta irakasleak dira polo horiek. Hezkuntza sistemaren kalitatea ezagutu nahi bada, bi polo horiek aztertu eta balorazioa emanaz bukatu besterik ez da egin behar.

Bi instantzia hezitzaile horiek norabide berean doazenean, haur, nerabe eta gazteengan eragiten duten efektua erabat esponentziala da. Aintzat hartu behar da

ere, bien hezkuntza proiektuak eta plan teamenduak bat ez datozenean eragina kezagarria izaten dela.

Nolako irakasleak behar dituzte gure seme-alabek?

Nire jardunean ez naiz eskola erakundeaz beraz arituko. Gogoeta honen ardatza hezkuntzaren benetako protagonistak izatea nahi dut: ikasleak. Ados bazaude nirekin bizitzeko hezten dugulako ideian, nahitaez ondorioztatuko dugu haiek, gure ikasleak, beren bizitzaren protagonista direla eta irakasle eta gurasook uzten diegun munduari aurre egitea egokituko zaiela. Eskola bitarteko bat baino ez da (eta ez da gutxi), ikasleei denon artean hobetzen lagundu beharko genukeen mundu konplexu, anitz, zail baina era berean zoragarrian hazten eta heltzen laguntzeko baliabidea.

Gure seme-alabek behar dituzten irakasleen ezaugarriak laburtu behar izatekotan, logikoa den moduan, bokazioa eta “profesionaltasuna” aipatuko nituzke. Utz iezadazue irizpide hau teknikari eta adituen ikerketaren esku uzten, berek

sakon dezaten irakaslanaren alderdi profesionalenetan. Bada, hainbeste balietsitako hautemate objektibo honetatik harago, nire aburuz irakasleen giza ezaugarrien oinarri beharko luketen balio batzuk zerrendatuko ditut.

Gure ikasleek, lehenik, maite dituzten irakasleen beharra dute. Ozen esaten dut esan. Eta berdinean esaten dut ez dela kasu bakan batzuetan bakarrik gertatzen. Eta, noski, asko direla laguntzeko prest diren profesionalak. Familien edo irakasleren baten txeragabetasuna porrot biribila izanen litzateke belaunaldi gazteekiko dugun konpromisoan. Ikasle bakoitza bizi proiektu bakarra da, errepikaezina, eta pertsona bezala bilakatze-ko eta hazteko aukera etengabea duena.

Gure ikasleek, orobat, beren buruari galderak egiten ikasi beharra dute, eta horretarako garrantzitsua da haiengandik onena ateratzeko gai izanzen diren irakasleak izatea, irakasle “komunikatzaileak”, ikasleek galderak egin eta beren buruei galdetu, zalantzak izan, ulertu eta azaldutakoa barneratu dezaten lortzeko ahalmena duten irakasleak. IKTen,

informazioaren, komunikazioaren... munduan murgilduta bizi gara eta ikasleek irizpideak sendotu behar dituzte eta baliabideak eskuratu “nabigatzen” ikasteko, belak zabaldu eta diskriminatu gabeko informazio itsasoan zeharbidea egin ahal izateko.

Hirugarrenik, gure ikasleek jakin-mina, irakurzaletasuna, irakasgaiarekiko interesa eta ezagutzetan sakontzeko eta eguneratzeko gogoia duten irakasleak behar dituzte. Transmittitzen denaren zati handi bat “kutsatu” egiten da, gogo bi-ziaren bidez...

Eta zerrenda honen azken tokian, baina ez lehentasunari dagokionez, honakoa dago (ia-ia atzera egingen dut hasierara): edukiak irakastea edo transmititzea garrantzitsua izanik ere, eginkizun horretaz harago kokatzeko gai diren pertsonak, profesionalak, behar ditugu gure artean. Ikasleek eskertzen dute banaka balioetsiak izatea; koherentzia behar dute: sinesgarritasunez jardun dezagun, esanaren eta eginaren artean nahitaezko oreka gordez. Eta autoritatea behar dute, ez


dezala inork ahaztu, izan ere, errespetuarekin talka ez egiteaz ez ezik errespetuaren ondorioa da, hain zuzen ere, eta zenbaitetan bidezko lege, arau edo neurrien eskakizunaren bidez gauzatu beharra dago.

Heztea ez da erraza baina bada herentzia onena, ikasle bakoitzaren etorkizunerako eskain dezakegun oinorde prezia- tuena eta erabakigarriena.

Maisu edo maistra bakoitzak (maisutza lanbide ororen ama da eta gure bizitzarako funtsezko oinarri), irakasle bakoitzak, esanen nuke, ongi ulertzen du zeinen garrantzitsua den bere lana egunez egun, ikasturtez ikasturte. Jakitun izan behar dugu eta beti zaila baina horren baliotsua den irakasle lanbideari eman beharko genioke merezi duen aitortepena, irakaslan onak gure gizartearen eta gizartea osatzen duten pertsonetako bakoitzaren etorkizunerako duen eragina aintzat harturik.

José Iribas Sánchez de Boado

Nafarroako Gobernu-ko
Hezkuntzako kontseilaria





AURKEZPENA

Pedro González Felipe

Nafarroako Eskola Kontseiluko burua

Gure gazteen eskola arrakastarako funtsezko faktoreetako bat irakasleak direla esatea, beharbada, gaur egun hezkuntza erkidegoak duen diskurtso profesionaletik kanpo dago honezkero. Eta hala da baieztapen honekin bat egiten duten ebidentzia enpirikoak gero eta indartsuagoak, frogatuagoak, direlako eta, ondorioz, denek onartuagoak. Dena dela, irakaslanean jardungo direnek izan beharreko funtsezko ezaugarrietan sakondu gabe jarraitzen dugu, oraindik ez baitugu zehaztu zein diren gure hezkuntza sistemaren aurrerapen egokia ahalbidetuko duten erabakiak hartu beharra duten instantziei irakasleen prestakuntzarako, hautaketarako eta hobekuntza profesionalerako ildoak markatuko lizkiekeen gaitasun profesionalak.

Akaso mundu aldakor batean gaude-lako izanen da, “gizarte likido” batean: Zygmunt Baumanek bikain azaldu du egungo gizartearen nolakotasuna cons-

tructo horren bidez, gizarte likidoa balio sendo, onartu eta partekatudun gizartearen kontrakoa da-eta, mundu bat non etengabe hedatzen diren ezagutza berriak, hain aldakorrek ezen helezinak diren, eta non egia dirudien gauza bakarra aldaketa den eta, hartara, baliorik preziatuena ziurgabetasuna kudeatzeko gaitasuna den.

Testuinguru horretan arraz zaila da eskolak behar dituen irakasleen soslaia zehaztea, badiren arren indarreko bi arrazoi ikaragarri lan horretan tema gaitzen:

“Mc Kinsey txosten” ezagunaren argitalpenetik ospe handia lortu duen baieztapen indartsua: inongo hezkuntza sistemak ez du bere irakasleriarena baino kalitate handiagorik. Beraz, ez da kalitatezko hezkuntza sistemarik kalitatezko irakaslerik gabe.

Heldu diren urteetan, gure herrialdeko irakasleen ia herenak irakaslanea utziko

du. Irakasle kopuru erraldoi horren tokia betetzeko erronkan dugun arrakastaren arabera izanen da ere gure hezkuntzaren bilakaera.

Bi kontu horiek irakasleekin loturiko elementu guztiak premiaz birpentsatzeko atakan jartzen gaituzte. Hasierako presetakuntza, irakaslanean sartzeko prozesuak, garapen profesionala eta irakasle karrera edo irakasle lanbidearen ospe soziala hezkuntza politikaren eztabaidan premiaz sartu behar duten gaiak dira eta egun hauetan argitaratuko den lege proposamen berriarekin batera, alboz albo, garatu beharko dute. Horrela egin ezean, berriz galduko dugu hurbilena den eta agian eskola testuinguruan eragin nabarmenena duen faktorearen bitartez gure eskola hobetzeko abagunea.

Horretaz jabetuta, gai hau landu zen Nafarroako Eskola Kontseiluak ikastetxeetako eskola kontseiluekin egindako

XIV. jardunaldian, “Eskolak behar dituen irakasleak” izenburupean, eta aurrean duzun aldizkari honek, IDEAren 41. zenbakiak, probetxu handikoa suertatu zen jardunaldi hartan sortutako informazio guztia biltzen du.

Aurrekoaz gain, eta ohiko eskemarekin jarraituz, irakasleen gaineko ikuspegi konparatiboa eskaintzen dugu, Eskola Kontseilua osatzen duten sektore desberdinen ikuspegia jasoz egin baita: eskola publikoko eta itunduko irakasleen ordezkaria eta, hezkuntza administrazioaren aldetik, Hezkuntza Departamentuko Prestakuntzaren eta Kalitatearen Atalarena.

Gainera, IDEA aldizkariaren zenbaki honek ohikoak (baina horregatik ez garrantzi gutxiagokoak) diren bi atal ditu. Batean prestakuntzaren alorrean abian jarritako bi esperientziaren berri ematen da eta, azkenik, mundu akademikotik datarren ikuspegi interesgarri bat azaltzen

da une honetan guztiz funtsezkoa den gai batean, IKTetan, irakasleak prestatzeari buruz.

Espero eta nahi dut argitalpen hau, hezkuntzaren munduko gaurkotasun handieneko gai batez aritzeagatik interesgarria izateaz gain, zuen lanean baliagarria gerta dakizuela eta balio dezala lasai, baina gelditu gabe, birpentsatzeko zer ekintza izanen liratekeen egokienak gure hezkuntza sistemak profesionalik onenak izan ditzan, irakaslanera gaituek erakartzen asmatzen ez badugu, gure etorkizuna jokoan izanen dugu-eta.

Pedro González Felipe,

Nafarroako Eskola
Kontseiluko burua





ELKARRIZKETA

Francisco López Rupérez

Estatuko Eskola Kontseiluko burua.

Testua: Nuria Morales Benito,
Nafarroako Unibertsitateko
Kazetaritza graduiko ikaslea

Zein dira irakasleen prestakuntzaren erronka berriak?

Nazioartean adostasun handia izaten ari da irakasleek ikerketa akademikoan eta hezkuntzako faktore gisa duten garrantziaz, hezkuntza politiken gainean hausnartzea helburu duten erakundeetan azterlanen emaitzen ondorioz. Azken hamarkadan irakaslanak izan dute ardatz azterlan horiek. Nazioarteko mugimendu hori argi eragiten digun erreferentzia elementua da. ELGAK, McKinsey nazioarteko kontsultorak eta, jakina, Europar Batasunaren 2020rako Hezkuntzako eta Prestakuntzako Estrategiak, oinarritzko gaitzat jotzen dute irakasleen prestakuntza, hautaketa eta garapen profesionala eta, hartara, politikaren arduretako bat da hezkuntzaren eta kalitatearen hobekuntzarantz aurrera egiteari begira.

Espainian nori dagokio irakasleen hobekuntza prozesu horri ekitea?

Normala den bezala, hezkuntzan kontu horiei ez zaie ikuspuntu bakarretik helden. Aitzitik, hezkuntza politiken eraginpean dauden eta arazoaren konponbidearen parte diren eragile desberdinak sartzen dira jokoan. Denen inplikazioa behar da: irakasleena eta haien or-

dezkarriena, autonomia erkidegoena eta, noski, Estatuarena, hark abiatu behar baitu irakaslanak arautzeko ekimena. Lanbide honek garrantzi handia du gizartearendako, Estatuak arautu behar izateko bestekoa (medikuekin gertatzen den bezala); horregatik, Estatuari dagokio araudiaren oinarritzko esparrua finkatzea. Gero, autonomia erkidegoei dagokie esparru hori garatzea eta aplikatzea, azken finean beraiek kudeatzen baitituzte irakasleak. Eta irakasleei eta elkarte profesionalai eta sindikatuai, berriz, etorkizuneko erronken ikuskera behar bezala ulertzea eta beren ikuspuntua ematea dagokie, denon artean irakaslanaren hobekuntzan aurrera egin dezagun.

Irakaslanaren Estatutuak ez du aurrera egin, ahaleginak ahalegin...

Oinarritzko esparru hori prestatzetik hurbil gara?

Egoera politiko onean gaude, printzipioz, suertatu delako bi alderdi handiek beren programetan gai horri heldutzea. Eta ikuspegi aski antzekotik helden diote gainera. Beharbada bien arteko aldeak da PSOEk dagoeneko argi darabilen hezkuntzako BAMEaren ideia eta PPK ez, baina PPK antzeko deskribapena darabil irakasle lanbidea hasieratik hobeki

egituratzeko nahi duena azaltzerakoan. Gainera, parlamentuko talde popularrak eremu horiek azpimarratzen dituen ez-legezko proposamena aurkeztu du Diputatuen Kongresuan. Nire ustez, politikaren ikuspuntutik dituzten benetako desberdintasunez harago, badira puntuak non bat etortzen ahal diren bi alderdi horiek eta horietako bat da, justu, irakasleen auziari dagokiona.

Bestetik, zentzu berean doan bultzada bat dator EBtik eta harekiko gure konpromisoekin lotura du. Berriki, Hezkuntzako ministroen Kontseilua batzartu da, sei hilero honetan Europar Batasunaren burutza izan duen Irlandak sustaturik, eta irakasleen hautaketari, hasierako eta etengabeko prestakuntzari eta ongi egituraturiko karreraren bidezko lanbide garapenari buruzko politiken gainean aritu dira. Beraz, une aproposan gaude. Aprobetxatu egin behar dugu eta denok elkarrekin lan egin, Estuari dagokiolarik ekimena.

Irakasleendako etengabeko ebaluazio prozesu bat izan beharko litzateke?

Ikerketa zorrotzetatik datozen ebidentzia enpirikoek adierazten dute irakasleen ebaluazioak positiboki atzeraelikatzen duela hezkuntza sistemaren hobekun-



tza eta funtsezko zerbait dela. Adibidez, ELGAren Talis txostenak alderdi hori jorratzen du eta agertzen du irakasleen ebaluazioari dagokionez Espainia ELGAko herrialdeen atzeko tokietan dela. Batzuetan irakasleek mehatxutzat dute ebaluazioa, eta uste dut botere publikoen ardurak dela irakasleei erakustea ebaluazioa aukera ederra dela norbera eta hezkuntza sistema bere osotasunean hobetzeko. Hezkuntza hobekuntza hori lortu daiteke ebaluazioa norbanakoen garapen pertsonaleko eta lanbide karrerako aurrerapausoekin lotuz eta, orobat, ebaluazioa etengabeko prestakuntzarekin eta sariarekin lotuz. Hau da, ebaluazio prozesu baten ondorioz ikusten bada irakasle jakin batek arlo jakin batzuk hobetu beharko lituzkeela, gero prestakuntza prozesu baten bidez betetzen ahal dira arlo horietako gabeziak. Gauza bera esaten ahal da promozioaz, jomuga horretarako prestatzen ahal gara eta. Irakasleen ebaluazioa gure herrialdera iritsiko den nazioarteko mugimendua da; ezinbesteko duguna da mugimendu hori aitorituak izateko eta hobekuntzarako parada bezala azaltzea, eta ez zigor edo mehatxu gisa. Hori lortutakoan aurrerapauso nabarmena emanen da sistema hobetzeko eta irakasleen itxaropen indibidualei hobe erantzuteko. Estrategia horrekin denek irabazten ahal dute.

Gaur egun irakasleek hainbat ikastaro egin ditzakete beren etengabeko prestakuntzarako, baina ez da sistema egituratua eta merezimenduak edo puntuak irabazteko sistema erraz bezala ulertu liteke... Nola lortzen ahal da etengabeko prestakuntzako sistema antolatua, eraginkorra eta bateragarria dena irakasleena bezain lan estuarekin?

Nire iritziz, horren gainean hausnartu beharra dago prestakuntza, elementu isolatu bezala utzi beharrean, izan dadin irakaskuntza hobetzeko xedea duen eta banako ahaleginak sendotzen dituen politika bateratuen sortaren osagaietako bat. Argi dago irakasleen prestakuntzak hobera egin duela teknologia berriak edo gaitasun desberdinak dituzten ikasleen arreta beharra bezalako gaietan, finean hezkuntzan, gaur egun sistema konplexu bat den honetan, sortzen diren gai mordoan. Baina horrez gain, etengabeko prestakuntza are esanguratsua da irakasle lanbidearen kontzeptu modernoari atxikitako beste politika batzuekin lotzen denean. Ikuspuntu kontzeptual batetik begiratuta, Karrerako planaren nozioak ebazten du hori, hots, prestakuntza, ebaluazioa, sariak eta, kasua denean, irakasleen promozioa koherentziaz uztartzen dituen lanbide garapeneko aurreikuspen pertsonaliza-

tuak. Karrerako plana politika sorta hori guztia (ebaluazio, prestakuntza, sarie eta promozio politikak) itsasten duen kola moduko bat litzateke. Labur esanda, besterik gabe noizean behingo prestakuntza anekdotikoa antolatu ordez, prestakuntza hobekuntzako prozesu edo estrategia osoari lotzea da gakoa. Elkarren artean lotuta izan gabe, politika horien eraginkortasuna askoz ere txikiagoa izanen da.

Francisco López Rupérez
Estatuko Eskola
Kontseiluko burua.



ELKARRIZKETA

Jesús Manso

Hezkuntzaren Politika eta Teoriako irakaslea.
Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.

Testua: Nuria Morales Benito,
Nafarroako Unibertsitateko
Kazetaritza graduiko ikaslea

Zein izanen litzateke irakasleen hasierako prestakuntzarako sistemarik onena?

Espainian bi eredu tipiko daude: batetik Haur eta Lehen Hezkuntzako graduak, non didaktikaren eta diziplinaren prestakuntza ematen den, eta bestetik Bigarren Hezkuntzarako prestakuntza, non diziplina karrera jakin batean ikasten den eta gero prestakuntza pedagogikoa ematen duen masterra egiten den. Nik nahiago dut lehenengo ereduak. Uste dut didaktikaren prestakuntza diziplinaren prestakuntzarekin bateratzea dela onena, bereziki laguntzen baitu irakasle nortasuna eratzen: norberak jakitea zer esan nahi duen irakasle izateak eta bere burua horrekin identifikatzea, jakintza-gaiarekin hainbeste lotu gabe. Hori guztia eredu orokor batez hitz eginez gero izanen litzateke, uste dut bi prestakuntza ereduak bateratu beharko genituzkeela eta, zentzu horretan, prestakuntzak beti bi alderdi horiek izan beharko lituzke jomuga eta biak ongi estalita izan. Gainera, zati praktikoak pisu benetan handia izan beharko luke; erakunde batzuek diotenez %50 hezkuntzako ikasketetan. Batzuetan maisu-maistra izateko prestatzen ari direnak ikastetxe batera bidaltzen dira, baina inongo helbururik gabe. Praktiken funtsa da, besteak beste, prestakuntzan eman dieten esparru teorikoaren gainean apur bat hausnartzeko gai izan daitezela.

Hori guztia kontuan izanik, non dira

hasierako prestakuntzaren egungo espainiar sistemaren gabeziak?

Uste dut batez ere Bigarren Hezkuntzako irakasleen prestakuntzari buruz egin behar dela gogoeta, Haur eta Lehen Hezkuntzakoari buruz baino gehiago, ageriko gauza da, eta jada eman dira urrats batzuk, Bigarren Hezkuntzako masterra kasu. Arazoa ereduak dago: asko oinarritzen da diziplinetan, pisu handia du kimikaria, historialaria... izateak baina sarritan ez da argi izaten irakaslea izatea zer den. Azkenean jende asko dago masterra egiten bukatzen duena beren diziplinako lanbidean askoz ere irteera gehiago ez dagoelako. Gainera, Bigarren Hezkuntzako prestakuntza konplexuagoa egin da: hirurogeita hamarrek hamarkada aurretik gutxi ikasten zuten, orain gehienek ordea. Hezkuntzaren puntutik zailagoa da betidanik egon delako Lehen Hezkuntza eta argiago dugulako zertarako den.

Zentzu horretan, espainiar hezkuntza politikak hoberako bilakaera izan du?

Noski, gauza asko hobetu dira: unibertsitateko ikasketetako sarbidea, hezkuntzaren doakotasuna 3 urtetik 16 urtera, irakasleen prestakuntza hobea... Baina bada nabarmenduko nukeen puntu ezkor bat, gure sistema motelegi egokitzen zaiela munduan hain azkar gertatzen ari diren aldaketek, globalizazioa dela, teknologia berriak direla, eta abar. Nire ustean, erronka handi honek lege mal-

guagoak egitea eskatzen du, hau da, ez dugu saiatu behar bizitza guztirako gauzak egiten, aitzitik, aurrerago egokitzen ahal diren esparruak sortu behar ditugu. Zentzu horretan, deszentralizazioaz ari-tuko ginateke, baina Gobernu Zentrale-tik autonomia erkidegoetara ez ezik au-tonomia erkidegoetatik udalerrietara eta ikastetxeetara ere bai. Aurrerago eskual-deen, ikastetxeen eta ikasgelen erreali-tatera egokitzen ahalko diren esparruak sortzea ezinbestea da, errealitate horiek etengabe aldatzen direlako, toki bakoit-zean bere erritmoan.

McKinsey 2007 txosten ezagunak dio irakasle onenak direla irakaskuntza prozesuan prestakuntza handiena jaso dutenak. Ondorioztatzen badugu Espainiak bere irakasleei dagokienez gabeziak dituela emaitza onik ematen ez dugulako, non du jatorria arazoak?

Txostenak esaten duena da ezinezkoa dela kalitatezko sistema izatea kalitatezko irakasleria gabe eta, beraz, irakasle horiek prestatzeko kalitatezko sistema gabe. Eta ez da ideia soilak, datu empirikoak daude. Hezkuntza sistema onenak dira lortzen dutenak irakasle onenak prestatu, hautatu eta atxikitzea (sentitu dezatela egiten dutenagatik balioesten dituztela, erronkak planteatzen dizkien prozesu suspergarri baten partaide direla, etab.). Espainiako arazoa da, hasteko, ez dela zabaldu gogoe-ta bat argitzeko zer uste dugun dela irakas-lea izatea. Beste herrialde batzuetan egin dute, esparru anglosaxoian adibidez, eta



beren legedia oinarri horren arabera aldatzen ari dira. Zentzurik ez duena da prestakuntza ereduak antolatzea alde aurretik ezarri gabe irakasle on batek izan beharko lituzkeen gaitasunak zedarrizten dituen esparrua. Finlandiako sistemak, bestetik, nabarmenagoak dira karrera ikasiko duten pertsonak aukeratzera dituzten irizpideengatik, irakasle izateko bete beharreko baldintzengatik. Eredu desberdinak daude eta batetik baino gehiagotik hartzen ahal ditugu ideiak.

Nolakoa da, zehazki, Finlandiako hautapen sistema?

Hasteko, irakasle ikasketetarako gutxieneko nota ia-ia bikainekoa da. Baina gainera, elkarriketa pertsonalak, nortasunaren probak, bizitzarekiko jarreraren testak (nola kokatzen duten beren burua bizitzaren aurrean, munduko problemen aurrean...) egiten dituzte, eta gizartearen eta lankidetzaren arloan interesak izatea balioesten dute. Hautaketaren gaia beti da gatazka iturri hezkuntza arloan, badakigulako hautaketa eginez gero pertsona batzuk lanbide horretan aritzeko aukera gabe utziko ditugula, eta hautaketa gaizki eginez gero jendea diskriminatu daitekeelako, agian besteek dituzten aukera berdinak ez dituztelako. Hautaketa prozesuetan, beraz, ezinbestekoa da aukera berdintasuna ziurtatzeko neurriak ezartzea, eta Finlandian asko zaintzen dute hau: adibidez, Estatuak joan-etorria ordaintzen dio herrixka batean unibertsitatetik ehunka kilometrora bizi den norbaiti. Hautaketa prozesu bezala

ulertzen dute, ez probatxo bat edo gutxieneko nota soil bat bezala. Espainian ez da egiten hautaketa, karrera ikasi nahi duen orok ikasten du eta gero oposizioekin egin behar izaten dugu hautaketa. Baina gainera orain gauden moduan krisialdian bagaude, eta oposizioerik ez bada, emaitza da milaka pertsona zalantzazko etorkizun baterako prestatu ditugula. Finlandiaren hautua da ikasketak baino lehenago egitea hautaketa.

Edonola ere, irakasle txarrak ditugu? Nork du haien prestakuntza hobetzeko ardura?

Uste dut irakasle onak ditugula, sinesten dut gure irakasleengan, areago jakinik maiz oso egoera zailetan aurkitzen direla. Esanen nuke prestakuntza sistema berriro pentsatu beharra dagoela, eta erakunde politikoei, Estatukoei eta autonomikoei dagokie lehenik aipatu ditugun elementu horiek guztiak zerrendatzea gero horien gainean arautzeko. Zentzu horretan, gaitasun profila zedarritu beharko litzateke, idatzi zeintzuk diren irakasle on batengan estimatzen diren gaitasunak. Hori administrazioen eginkizuna da. Gero, sei urte barru, prestakuntza esparrua aldatzen ahaliko dugu, egoeren arabera egokitu eta hobetzeko, baina hori baino lehen nolako irakasleak nahi ditugun erabaki beharko genuke. Horretarako, kontuan izan behar dira esparru komuna eraikitzen laguntzen ahal duten eragile guztiak, gurasoak, ikasleak, ikastetxeak. Era berean horrek unibertsitateei lagunduko lieke beren

ikasketa planak antolatzen, gaitasun bat ala beste indartu lezaketelako, edo ikuspegi desberdinak eman, azkenean denek lan egiten dutelako irakasle profil jakin bat erdiesteko, ezen badakigu emaitzak hobetzen dituela, irakaskuntza hobetzen zerk laguntzen duen esaten diguten azterlanak daudelako. Lehenengo ardura administrazioarena da eta, gero, funtsezko eginkizuna du unibertsitateak, batez ere unibertsitateko irakasleek berek, izan ere, gu irakasleak gara izan eta, maiz, asko falta zaigu behar den mailara iristeko. Espainian prestakuntza ereduak zertarako pentsatu gabe muntatzen ditugu, eta badakit ikuspuntu politikotik zaila dela denok elkarrekin hausnartzera esertzea, baina jakitun gara beste herrialde batzuek egin dutela eta emaitza hobeak lortu dituztela.

Ematen du LOMCeren lege egitasmoak ez duela inolako ekarpenik egiten zentzu honetan...

Ez du ezer esaten gaiaz. Oraindik onartzeko dago Irakaslanaren Estatutua. 2005ean saiakera bat izan zen arren, azkenean ez zen aurrera atera. Uste dute tresna politiko funtsezkoa eta beharrezkoa izanzen litzatekeela hezkuntzako BAMEa eta oro har hautaketa eta prestakuntza prozesuak moduko gaiak ukituko lituzkeelako. Estatutu hau gaitza da sindikatuak, erretiroa eta abar bezalako beste kontu batzuk ukitzen dituelako.

Jesús Manso, Hezkuntzaren Politika eta Teoriako irakaslea.



ELKARRIZKETA

Miguel R. Wilhelmi

Nafarroako Unibertsitate
Publikoko irakaslea

Aurora Bernal

Nafarroako Unibertsitateko
irakaslea

Testua: Nuria Morales Benito,
Nafarroako Unibertsitateko
Kazetaritza graduiko ikaslea

Aurten aterako da plazara Maisu-mais-tren graduetan Boloniako ikasketa plan berriarekin ikasi dutenen lehenengo promozioa. Zertan hobetu da horien hasierako prestakuntza?

Miguel Rodríguez: Ikasleen ezagutza gehitu egin da, bai hurbileko hezkuntza inguruari (eskola bera) bai gizarte inguruari (orain familia da protagonista handia) dagokienez. Handitu egin da oinarritzako prestakuntza, baita Bigarren Hezkuntzako masterrean ere. Gainera, ikerketa prestakuntza gehitu egin da Gradu Amaierako Lanaren bitartez, zeina lagungarria suertatzen den gero irakaslaneko jardunean ekiteko eta ikertzeko. Edonola ere, hasierako prestakuntza eskolako hasierako urteekin eta etengabeko prestakuntzarekin lotu beharra dago seguruenik, gaur-gaurkoz hiru departamentu itxi baitira, elkarrekin lotura gabeak. Uste dut administrazio publikoen mailan, unibertsitate mailan zein ikastetxeen mailan gauza askotan hobetzea dagoela.

Aurora Bernal: Lanbidearen ospea hobe-

tzea ere funtsezkoa izan da, karrerako urteak gehitzean Maisu-maistra graduak beste edozein gradurekin parekatu dira-eta. Lanbide batzuen eta besteen balioen artean nolabaiteko desoreka zegoen unibertsitatean ikasi beharreko gaitasunei zegokienez. Zentzu honetan, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan oraindik aurreikusi ez den zerbait gertatuko delakoan nago, alegia, denek maila profesional bera izanzen dutela eta, beraz, eskala ekonomiko berean izanzen direla.

Zer dakar Gradu Amaierako Lanak hasierako prestakuntzarako?

Miguel Rodríguez: Honekin esperientzia irabaziko dugu, denentzako zerbait erabat berria izan delako. Uste dut GALarekin praktikek nolabait balio handiagoa izanzen dutela, izan ere, ikastetxe batean egindako praktikekin loturiko lan teorikoa da eta epaimahai baten aurrean defendatzen da. Bultzada handiagoa emanen du hasierako etapa honetako garapen profesionalerako eta tituluak hobetzeko. Uste dut irakasle guztioi haus-

narraraziko digula ematen ari garen prestakuntzari buruz, ikasketei buruz eta ikasleak eskuratzen ari diren gaitasunei buruz.

Aurora Bernal: Ikasgai izarra da, dena batzen duelako: gaitasun pertsonalak, praktikak eta horien lotura teoriarekiko. Egia da ere aurten zaila izaten ari dela ez ikasleek ez irakasleek ez dutelako denbora gehiegi izan ikerketa proiektu bat egiteko. Aurtengo esperimentziarekin gure fakultateak aldaketa egingen du bai garapenari bai ebaluazioari dagokienez.

Ikastetxeetako praktikak nola garatzen eta ebaluatzen dira?

Miguel Rodríguez: Neurri handi batean ikastetxeen beren arabera izaten dira. Guk planteatzen ditugu, lehenik, izaera soziopsikopedagogikoa duten hasierako praktika batzuk, behaketa zati bat ere badutenak, eta hori gero 4. mailako irakasgaien funtzionamendurako lagungarria da. Ondoren, 4. mailan, badira luzeagoak diren bi praktika, aipameneko



bat (espezializazioa) eta gero orokorrak diren beste batzuk.

Aurora Bernal: Nafarroako Unibertsitatean praktika gehienak hirugarren eta laugarren mailan biltzen dira. Aipamenen espezializazioa hirugarreneko praktikumean egiten da, egiten den ikastetxearen arabera. Atzerriko hizkuntzako gaitasunean beste herrialde batzuetara joaten dira eta oso aberasgarria gertatzen da irakasteko era berriak eta beste kultura batzuk ezagutzeko. Ikasle askok atzerriko praktika horiek errepikatu egin dituzte eta batzuek lana ere topatu dute.

Prestakuntza esparruan malgutasuna izan beharko litzateke ikasten den unibertsitatearen arabera?

Miguel Rodríguez: Irakasleak prestatzeko esparrua orokorra izateak bere zentzua du, maisu-maistrek gizarteak haiengandik espero dituen gaitasunak izan behar dituztelako. Horregatik, oso ona da Estatu mailan arautu izana. Baina gero ñabardurak izaten dira graduak di-

seinatzen dituzten irakasleen orientazio teorikoaren arabera, Gizarte Zientzietan ez dagoelako ikuspegi teoriko eta metodologikoak bideratzeko baliozko teoria bakar bat.

Aurora Bernal: Irakasleen araberrako malgutasuna ere bai, izan ere, irakaslea da espezialista, ez zaio esaten goitik zer eta nola irakatsi behar duen. Unibertsitateen arteko aldea batez ere bakoitzak nabarmentzen dituen alderdietan eta ikuspegietan daude, batez ere jakinik irakaskuntzak oso gai anitzak jorratzen dituela.

Zuen fakultateetako hautaketa prozesua nahikoa da irakasleria ona bermatzeko?

Miguel Rodríguez: NUPen hautaketa-rako irizpide nagusia ebaketa nota da. Haur Hezkuntzaren aurretik Fisioterapia, Erizaintza eta Titulazio Bikoitza baino ez daude, baina urteren batean ebaketa nota altueneko karrera izan da, eta justu atzetik du Lehen Hezkuntza. Eztabaidara zabalik den gaia da, beste neurri batzuk

ezartzea legoke, baina gauden sistemaren mende dago neurri handi batean. Hemen ere sartuko litzateke hasierako prestakuntza murgiltze prestakuntzarekin eta etengabeko prestakuntzarekin loturik izatea, gure sisteman ulertzen delako Maisutza ikasten duen edonor maisu edo maistra dela (ez da horrelakorik gertatzen Ekonomiako karreran, kasu). Eta ondoko hautaketa prozesuetan ere ez da gardentasunik, adibidez, ez dago argi oposizioak egiteko irizpideak zeintzuk izanen diren. Unibertsitateak ez daki. Bigarren Hezkuntzako masterraren kasuan, gainera, ez dakigu oposizioek hasierako prestakuntzaren eskakizuna izanen duten (Matematika espezialitatea egitea masterrean) edo besterik gabe masterra izatea eskatuko den.

Aurora Bernal: Arazo administratiboa da: lanbidean sartzeko baldintzak arautu gabe daude. Adibidez, orain ez dakigu maisu edo maistra izanik orientazioko masterra egiten ahal den eta hori egitea nahikoa den orientatzailea izateko. Gure aldetik, hautaketarako ebaketa



nota hartu beharrean Batxilergoko batez bestekoa kontuan hartzen dugu, eta une honetan 7koa da. Hala ere, benetako hautaketa lehenengo mailan zehar egiten dugu eta ikasleak horren jakinaren gainean jartzen ditugu. Lehenengoa kurtso zaila da edukien aldetik eta gainera ezagutzen eta jarreraren azterketa egiten dugu (hezkuntza zer den jakin behar dute), eta hortik beste karrera batzuetara orientatzen ahal ditugu. Alderdi askoren balantzea egin behar izaten dugu, adibidez, gauza bat da lotsatia izatea eta beste bat komunikaziorako gaitasunik ez izatea.

Nola egiten zaie aurre unibertsitatean ikasgeletako indarkeria bezalako gizar-te gatazkei, immigrazioaren ondoriozko kultura kontrastei, sare sozialek ekarritako komunikatzeko modu berriei eta abarri?

Miguel Rodríguez: Gai horiek lantzeko irakasgaiak daude baina gero uniber-

tsitateak jarraitasun guneak nabarmendu behar ditu: irakasleak ezin ditugu garai jakin baterako prestatu, aitzitik, beren bizitza profesional osoan maisu-maistrak izateko prestatu behar ditugu, datozen aldaketetara egokitzeko gai izan daitezen. Eta titulazioek bere bitarteko rola betetzen dute alderdi jakin batzuetan. Adibidez, joan den astean NUPeko masterrean gizarte ekintzako unitateak Bigarren Hezkuntzako harreman afektibo-sexualaren gaineko ikastaroa eskaini zuen. Masterrarekiko ikastaro paraleloa da, baina joatera premiatzen ditugu ikasleak. Joan den astean ere ikastaro bat eman genuen Raúl Santiagorekin informazioaren teknologiaz, hezkuntza erabilerako softwareaz, sare sozialez... hitz egiteko, baina hori ez da ez curriculumean ez espedienteetan agertzen.

Aurora Bernal: Askotan gai polemikoenak ikasgeletan edo irakasgaien zati praktikoetan lantzen dira. Etikako irakasgaietan sexu-hezkuntza eztabaida talde

txikien bitartez jorratzen dugu, adibidez. Gainera funtsezkoa da beste irakasle batzuekin lankidetzan aritzea eta karreran zehar egiten diren kongresu eta ikerketa jardunaldietan parte hartzea. Unibertsitatean familien desegituraketa, immigrazioa, elikaduraren nahasteak... bezalako gaiei heltzen diegu. Irizpidedun jendea nahi dugu, burua ongi antolatuta duena, baina egia da: hori ez da notetan ikusten.

Argi da unibertsitateek irakasleei prestatuntza ahalik eta osoena emateko egiten dutela lan baina, non dago orduan irakasleen arazoa Espainian? PISAko emaitzek zer puntutaraino erakusten dituzte irakasleen gabeziak?

Aurora Bernal: Nik uste dut Espainian irakasle onak ditugula. Beharbada arazoetako bat da pertsona multzo bat beste nonbait ez egotearren dagoela irakasletzaren munduan, baina bokazio handiko pertsonak ere badira. Bestetik, ikastetxeek bereziki nozitzen dute



gizartean hainbeste aldaketa gertatzea: gizartea etengabe aldatzen ari da eta irakasleak galduta sentitzen dira horren ondorioz. Pertsonak balio eta gaitasun batzuekin prestatu behar dira, datorrena datorrela prest egon daitezten. Zentzu horretan, irakasleei asko exijitzen zaie-lakoan nago. Eta irakasleak gutxi baloratzen direla ere uste dut; batzuetan kexa jarreran gelditzen gara baina ez dugu ekiten ekitea dugun gauzetan.

Miguel Rodríguez: Egia da izan prestakuntzaren hasierako itxaropenak eta lan jarduna ez datozela bat, bereziki Bigarren Hezkuntzan, non Biologia ikasi duenak azkenean Matematika ematen bukatzen ahal duen. Zenbait irakasle egoeretara egokitzen dira eta beren kasa prestatuz gainditzten dituzte beren gabeziak, profesional apartak izanik, baina diziplina guztietako irakasle onak izateko baldintzak sortzeko beharko litzatekeen erakundeen eta gizartearen onarpena falta da. Norbanakoen boron-

datean oinarritzen da hau guztia. Lehen Hezkuntzan ez da hain agerikoa Maisutzan izena ematen duenaren itxaropena irakasle jeneralista bihurtzea delako eta karrera osoan zehar irakasle jiteaz blaitzen doalako. PISAri dagokionez, beste herrialde batekin 3 puntuko aldea lortzea zenbateraino den esanguratsua eta adierazgarria jakin beharko genuke. PISAko datuen benetako analisirik ez da, ez prentsan ez administrazioan: zer esan nahi duten, testuingurua, zer eragin duten... Ezin da datu horien balorazio absolutua egin beren testuinguru sozioekonomikoa eta bilakaera historikoa jakiteke.

Unibertsitateak nola egiten ahal dio aurre Bigarren Hezkuntzako irakasleek jasaten duten itxaropenen nahaste horri?

Aurora Bernal: Dagoeneko irakaslanean ari direnentzako irtenbide bakarra, gaur-gaurkoz, etengabeko prestakuntza eskaintzea da. Horretarako zerbitzua eman behar dute unibertsiti-

tateek. Ezinbestekoa da ere ikastetxeekin eta irakasleekin buru-belarri elkarlanean aritzea, zer behar duten esan diezaguten eta guk behar diren neurriak jarri ditzagun.

Miguel Rodríguez: Sistema aldatu egin beharko litzateke hurrengo datozenentzako, hasierako prestakuntza ez dadin soilik diziplinakoa izan eta masterrak funtsean profesionalizatzeko eginkizuna bete beharrean ikertzeko balio dezan, hezkuntza errealtatea ezagutzeko eta hobetzeko, egiaztatutako eta oinarri teorikoen gainean eraikitako proposamenen bidez. Etorkizunean maisu-maistrentzako masterrak eta maisu-maistren eta unibertsitatearen arteko sinergia izanen dira, baldintzak hobetzeko prozesuak izanen dira. Bigarren Hezkuntzan antzeko zerbait egon beharko litzateke.

Miguel R. Wilhelmi, NUPEko irakaslea.
y Aurora Bernal, por NUko irakaslea.



TXOSTENA

Jesús Manso

Hezkuntzaren Politika eta Teoriako irakaslea.
Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.

Testua: Nuria Morales Benito,
Nafarroako Unibertsitateko
Kazetaritza graduko ikaslea

ESPAINIAKO IRAKASLEEN PRES- TAKUNTZA BIRPENTSATUZ: GURE MUGEZ HARAGO BEGIRA

Jesús Manso Hezkuntza Politikako (zehazki Europar Batasuneko) irakaslea de Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Hezkuntza Bereziko espezialitateko Maitutzako diplomaduna eta Psikopedagogiako lizentziaduna da. Bere prestakuntza ibilbidean, La Formación Inicial del Profesorado de Educación Secundaria: análisis y valoración del modelo de la LOE tesia nabarmentzekoa da; harengatik eman zioten UAMen Hezkuntza Europar Doktore titulua (2012).

Sarrera

Hirurogeita hamarreko hamarkadatik irakasle profilari eta eskolari buruzko azterlanak sortu ziren eta horrek hurrengo hamarkadetan irakaslanaren eraginkortasunaren fenomeno ikertzea ekarri zuen: zein diren irakasle on bat bereizten duten elementuak.

Une honetan azterlan horien tradizioari heldu zaio berriz ere eta horren adibide dira arestian aipatutako ELGA 2005 eta McKinsey 2007 txostenak. Irakasleen garrantzia nabarmentzen dute, zehazki **irakasle onenak erakarri, hautatu, prestatu eta atxiki beharra** azpimarratuz. UNESCOk horren gaineko lau txosten prestatu ditu aurten eta EBk ere Batasuneko herrialdeak erkatzen dituen azterlana egin du. Honek herrialde bakoitzak bere politikak egitea ekarri du, eta Espainian oraindik ere gai honen gaineko erreformen zain gaude. Irakasle onaren baldintza da, halaber, faktore giltzarri bat: **etengabeko prestakuntza, eta irakaslanaren profesionalizazioa**, gaur egun dau den gizarte baldintza konplexuetara egokitutako espezializazio gisa.

Prestakuntzaren norabideak: gaitasunak, nortasuna eta ospe soziala

Prestakuntzaren barruan garrantzi berezia dute **hasierako prestakuntzak eta indukzioaldiak**: karrera bukatu ondoko

lehen urteak, non irakaslanerako prestatzen den pertsona horretan jarduteko gaitzen duen profesionalizazio prozesu baten bidez. Alabaina, zeinahi erregulazioen aurretik baterako hausnarketa behar da guretzat **irakasle ona** nor den ebazteko: oraindik ez dugu zehaztutako profil bat, nortasuna eman ez diogun errealitate bat arautzen duten esparruak baino ez ditugu. Horri gaineratu behar zaio **irakasle guztiek elkarrekin lan egin beharra profil hori osatzeko eta irakasleen ospe soziala hobetzen** laguntzeko.

- **Irakasleen gaitasun profila:** irakasleen profil honen gaitasunak pentsatu behar dira, prestakuntza programa zentzu horretan bideratzeko.

Gaitasunek diziplina arteko ezagutzaz harago joan behar dute: jakintza psikopedagogikoa, aniztasunaren trataera, gurasoekiko tratua, ikasgeletako kudeaketa, etab. Europako herrialde gehienetan gaitasunen esparru bat dute eta hortik abiatuta egiten diseinatu dituzte pres-

takuntza esparruak. Eredu anglosaxoia da horren adibide argiena (Erresuma Batuko Irakasleriaren Agentziako *Get into a teaching: Professional standards for teachers*).

Europatik FIER 2009an egiten den gaitasunen proposamena, estatu kide desberdinetan balioesten diren gaitasunen arteko konparazio analisisian oinarritua. Esparruak diseinatzean kontuan izan beharreko zortzi elementuak dira:

- *Ikasgaia-diziplina*
- *Psikopedagogikoak*
- *Teoria eta praktika bateratzea*
- *Langileen arteko elkarlana eta lankidetzak*
- *Mugikortasuna*
- *Lidergo gaitasuna*
- *Etengabe ikasteko gaitasuna*
- *Kalitate bermea*

• **Irakasleen nortasun komuna** prestatzean, ezinbestekoa da profesionalek nortasun horren parte direla sentitzea, hezkuntzako edozein ziklotakoak direla ere. Gaur egun, ikerketek erakusten dute Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleak Bigarren Hezkuntzakoak baino gehiago sentitzen direla irakaslanarekin identifikaturik, behintzat irakaslanerako gaitzen dituen karrera bukatzerakoan. Zentzu horretan baterako ereduez (Haur eta Lehen Hezkuntzako gradua) eta ondoz ondokoez (Bigarren Hezkuntzako irakasleena) gogoeta egin beharra dago, bigarren kasuan irakasle profilarekin identifikazio txikiagoa gertatzen delako. Eredu misto baten alde egitea komeniko litza-teke, Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat behinik behin.

• **Ospe sozialari dagokionez**, datuek kontraesan bitxia erakusten dute irakasleek beren balorazio sozialari buruz duten ustearen eta gurasoek irakasleek duten iritzia-aren artean. Marchesiren arabera (2007ko azterlana) irakasleen %85ek uste zuten beren lana ez zegoela aski balioetsia gizartean. Pérez Justeren ikerlan batek 2008an agertu zuen irakasleen %87k uste zutela txarrera egin duela beren





prestigioaren eta gizartearen aintza-tespenaren bilakaerak. Bestalde, Ma-drilgo Bigarren Hezkuntzako irakas-leek uste dute 5etik 2,3 punturekin balora-tzen dituela gizarteak (Pérez Díaz eta Rodríguez, 2009). Beste datu batzuek, ordea, orokorrean irakasla-nak ospe txarra duenik ukatzen dute.

Izan ere, Marchesi eta Pérezen arabe-ra, gurasoen %80 baino gehiago agertu ziren irakasleak positiboki baloratzeare-kin ados, baina guraso horiek uste dute berek baino gutxiago baliosten dituela gizartearen gehiengoak. Europako 14 herrialdetako beste ikerketa batean 10etik 7 punturekin baloratzen zuten lanbidea. Bestalde, espainiar biztanle-riaren %92k derrigorrezko hezkuntzako irakasleengan konfiantza du eta emai-tza hori europar batez bestekoa baino altuagoa da, %85 baita Europan (BBVA Fundazioa, 2009). Azkenik, CISen 2005eko barometroak erakutsi zuen inkestatuen %60k positiboki baloratzen zuela irakasle lanbidea.

Irakasleen prestakuntzaren elementuak
Arlo desberdinen gainean ekiten ahal da. Hasteko, hasierako **hautapenean**:

- Benetan adierazgarria da 2010eko Mc-Kinsey txostenak esatea ikasle baten emaitzak puntu batean aldatzen ahal di-rela duen irakaslearen arabera.
- Hautapena prozesu bat izan beharko li-tzateke, ez proba bakarra, hainbat alder-di baloratu eta gero osotasunean azter-tu behar dira eta.
- Hautapenean arriskuak sortzen dira aukera berdintasuna bermatu ezean. Estatuak eta administrazioek baliabi-deak jarri behar dituzte.
- Ekonomikoki jasangarriagoa da sistema hori, gaur egun oposizioetan milaka per-tsona plaza gabe gelditzen direlako.

Hasierako prestakuntza unibertsitate-koa izan ohi da. Bi eredu nagusi daude, baterakoa (Maisu-maistra graduak) eta ondoz ondokoa (Bigarren Hezkuntzako irakasleen masterraren bidez), baina eredu mistoa ere existitzen da eta ho-

rretara ari dira jotzen Europako ereduak. Eredu mistoa bereizten da prestakun-tzaren hasieran prestakuntza didaktiko-pedagogikoak duelako pisu handiena eta bukaeran, aldiz, diziplinaren pres-takuntzak. Baterako ereduaren ahulezia handiena diziplinaren arloan gabezia ge-hiago dituela da eta ondoz ondokoare-na, berriz, bereziki diziplinaren oinarritzen dela. Gainera, Bigarren Hezkuntzako irakasle izateko prestakuntza birpentsa-tu beharra dago ikasketetan zehar praktkarik egiten ez delako.

Azkenik, indukzioa pentsatu beharra dago, irakasleen aurreneko lan urteei begira. Es-painian hezkuntzako BAME esaten zaio: hasierako prestakuntzaren barruan errotu-tako programa izanen litzateke, urtebetez edo bi urtez ikastetxe batean arituz eginen litzatekeena, irakasleei dagozkien ordute-giarekin eta soldatarekin, baina tutore ba-tek zainduta. Gainera, programak hautape-nerako balio ahal du. Europan dagoeneko hamazazpi herrialde ari dira indukzio pro-grama hau aplikatzen.



Azken gogoetak

Lehenengo egitekoa **irakasleen gaitasun profila** zehaztea da. Hortik eraikiko lirateke administrazio arauen esparruak, hasierako prestakuntzaren esparruak, irakasleak hautatzeko baldintzak eta etengabeko prestakuntza.

Malgutasuna prestakuntza hobetzen lagunduko lukeen elementua da, administrazio kudeaketara zein hasierako prestakuntzara begira: zergatik ez sortu Matematika irakasle izateko graduak? Ez da ahaztu behar ikasleen ikaskuntza prozesua eta prestakuntza osoa dela azken xedea, eta horretarako denen ahalginak batu behar direla.

Bertaratuen galderak

- *Nola prestatzen eta hautatzen dituzte irakasleak Singapurren, PISAn hain emaitza onak lortzen dituen herrialdean?*

Asiar zonaldean prestakuntza eta hau-

tapen prozesuek zer bilakaera duten ikusi beharko da ez baita hain zaila PISAn emaitza onak lortzea; seguruenik LOMCEren programa berriarekin emaitza hobek izanen ditugu. Herrialde horietako prozesuak eztabaidagarriak dira hango irakasleak presio handi baten pean bizi direlako, lan egonkortasunik ez dutelako eta gizarte baliabide gutxi dituztelako. Zentzu horretan, europar ereduak etorkizunean iraungarriagoak dira.

- *Nola erakarri eta atxiki irakaslerik onenak?*

Kontua ez da hainbeste soldata, Finlandian adibidez ez dute hemen baino askoz gehiago kobratzen. Gehiago da ospe sozialaren kontua: gizonek zein andreak beren bikotekide idealaren lanbideaz iriztia ematean gehien baloratzen duten lanbidea da han. Gugandik hasi behar dugu: sinetsi behar dugu gizarteko lanbide garrantzitsuena dugula. Mugimendu komuna eta banakakoa egon behar da, non balio handia emanen zaien irakasla-

naren berrikuntzari eta irakasleek beren lanarekiko duten inplikazioari.

- *LOMCEren proiektuak zergatik hobetuko ditu PISako emaitzak?*

Uste dut hobetu egingen direla emaitzak, hezkuntza zikloetan zehar egingen diren PISAKoen antzeko ebaluazio probengatik. Egia da ere PISAKo datuak gaur egun ez direla guztiz adierazgarriak, Espainiako eskualde batzuetan oso emaitza onak dituzte. Baina ezbairik gabe, irakasleak era horretako azterketetarako prestatzeak emaitza orokorrak hobearaziko ditu. Dena den, neurri honek ez gaitu gure helburu nagusitik aldentu behar, alegia, irakasle izateak esan nahi duen naz hausnartzetik, lortzen ditugun kalifikazioez harago.

Jesús Manso. Hezkuntzaren Politika eta Teoriako irakaslea.



TXOSTENA

Miguel R. Wilhelmi

Nafarroako Unibertsitate
Publikoko irakaslea

Testua: Nuria Morales Benito, Nafarroako
Unibertsitateko Kazetaritza graduako ikaslea

Irakasleen hasierako prestakuntzaren gaineko gogoeta Nafarroako Eskola Kontseiluak maiatzaren 25ean (larunbata) antolatutako topaketaren ardatza izan zen. Gogoeta hori ELGak eta McKinsey aholkularitzak ekoizitako hainbat ikerketa eta txostenetan oinarritzen da, besteak beste, frogatzen baitute hezkuntza emaitza hobeak lortzen laguntzen duen giltzetako bat irakasleria bikaina izatea dela. Txosten horiek Haur eta Lehen Hezkuntzako maisu-maistren zein Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakasleen hasierako prestakuntzaren kalitatea nabarmentzen dute eta, gainera, aintzat hartzen dituzte etengabeko prestakuntza, birziklatze profesionala eta lanbideak gizartean duen onarpena.

Irakasleen unibertsitate mailako prestakuntzaren gakoetako batzuk argitu asmoz, Nafarroako unibertsitate publikoko eta pribatuko arduradunak bertaratu ziren. NUPetik Miguel Rodríguez, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntzako Masterreko zuzendari akademikoa, Giza eta Gizarte Zientzietako Fakultateko idazkari akademikoa eta Matematikaren Didaktikako irakaslea; bestetik, NUTik Aurora Bernal joan zen, Maisutzako eta



Aurora Bernal

Nafarroako Unibertsitateko
irakaslea

Haur eta Lehen Hezkuntzako graduen koordinatzailea, Hezkuntza Departamentuko zuzendariordea eta Hezkuntzaren Historia eta Teoriako irakaslea.

Bi hizlariak beren unibertsitateek eskaintzen dituzten irakasle prestakuntzaren ezaugarriak azaldu zituzten, kontuan izanik bi unibertsitateetako ikasketa planek antzekotasun handiak dituztela hezkuntzari buruzko espainiar legeak Espainiako fakultate guztientzako berriazko esparrua ezartzen duelako, irakasleena bezain figura publiko garrantzitsuen profesionalizazioa homogeneizatzeko helburuarekin. Miguel Rodríguezek eta Aurora Bernalek azaldu zuten, unibertsitateek irakasleei gaitasun orokorretan prestakuntza bermatzeko rola betetzen dute, unibertsitate erakunde bakoitzaren lehentasunak zein diren, elementu desberdinak nabarmentzen eta eranstean direlarik.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak eskaintzen duen prestakuntzaren barruan Haur Hezkuntzako Gradua eta Lehen Hezkuntzako Gradua (gaztelaniaz edo euskaraz) eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntzako Masterra

daude. Bestalde, Nafarroako Unibertsitateak Pedagogiako, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduak eskaintzen ditu, Pedagogiako eta Haur Hezkuntzako edo Bigarren Hezkuntzako gradu bikoitza ikasteko aukerarekin. Nafarroako Unibertsitateak Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Unibertsitate Masterra ere eskaintzen du.

Irakasleen hasierako prestakuntzako alderdi azpimarragarriak

Praktiken eta Gradu Amaierako Lanaren balioa

Irakasleen prestakuntzan zehar praktikak egitea ohikoa zen arren, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparruko (Bologna Plana) ikasketa plan berriak praktikumeko kredituak indartu eta Gradu Amaierako Lana erantsi du. Lan horretan karreran zehar eskuratutako gaitasunak jardun profesionalarekin bildu nahi dira. Gradu Amaierako Lanaren ezaugarri nagusiak dira ikasketen azken kurtsoan egiten dela, ikastetxe jakin batean egindako praktikekin lotuta dagoela eta ikasleak

espezializatzeko aukeratu duen aipamenarekin zerikusia duela.

Bestetik, prestakuntza teorikorako zein ikasleen jardunerako, guztiz ezinbestekoa da taldean lan egiteko gaitasuna, kalitatezko irakasle profila bermatze aldera. Hori dela eta, bi fakultateek ikasmaita guztietan zehar exijitzen dute gaitasun hori.

Aipamenen bidezko espezialitatea

Ikasketa plan berriarekin Administrazioak irakasleen hasierako prestakuntzaren barruan eskuratzen ahal diren hirurogeita hamar aipamenen zerrenda arautu du. Fakultate bakoitzak, bere balibideen arabera, aipamen batzuk ala beste eskaintzen ditu. Nafarroako Unibertsitate Publikoak lau eskaintzen ditu: Gorputz Hezkuntza, Atzerriko Hizkuntza (ingeleza edo frantsesa), Pedagogia Terapeutikoa eta Musika-hizkuntza. Nafarroako Unibertsitateak, aldiz, bi aipamen eskaintzen ditu: Aniztasunari Erantzutea eta Hizkuntza gaitasuna Atzerriko Hizkuntzan (ingeleza).

Hitzaldietan azaldu zutenez, administrazioak ezarritako aipamenen artean ez daude teknologia berrietako prestakuntza ez eta prestakuntza artistiko eta plastikoa ere. Ikasketa plan berriak duen gabezia aipagarria da, ikastetxeen eta irakaskuntzaren benetako bi behar dira eta.

Bigarren Hezkuntzako irakasleentzako masterraren ezaugarriak

Irakasleen Unibertsitate Masterrak edo Bigarren Hezkuntzako Prestakuntza Masterrak berriazko karrera edo diziplinetatik irakaskuntzan sartzeko aukera ematen dute. Ikasketa plan berriarekin, master horiek eskaintzen dituzten unibertsitate guztiek prestakuntza modulu orokor batzuk, berriazko modulu batzuk eta Master Amaierako Lana barne hartuz egituratu behar dituzte. Masterraren bidez etorkizuneko irakasleek irakaslanerako behar diren ezagutza psikopedagogiko berekiak eta zehazki adituak diren gaietakoak eskuratu ditzaten lortu nahi da. Nafarroako Unibertsitate Publikoak honako berriazko moduluak eskaintzen ditu:

- Matematika
- Biologia eta Geologia
- Fisika eta Kimika
- Geografia eta Historia
- Gaztelania eta Literatura
- Ingelesa
- Ekonomia eta Enpresen Administrazioa
- Teknologia eta Sistema Elektronikoak

Nafarroako Unibertsitateak, bestalde, honako berriazko moduluak eskaintzen ditu:

- Giza eta Gizarte Zientziak
- Hizkuntza eta Literatura
- Matematika eta Zientzia Esperimentalak
- Hizkuntzen Irakaskuntza
- Hezkuntza Orientazioa

Irakasleen hasierako prestakuntzaren gaineko gogoetak

Egiaz ikusmolde diziplinarteko eta integratu bat izatea irakasleen hasierako prestakuntzaren giltzarrietako bat da. Eman zuen hitzaldian, Aurora Bernalek bereziki nabarmendu zuen Nafarroako Unibertsitateak eskaintzen dituen irakasle ikasketen planak bi alderdi horien arabera egituratzen direla, Pedagogia, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako graduaren artean alderdi teorikoetan zein praktikoetan egiten duten lan koordinatuari esker. Ikusmolde diziplinarteko eta integratuaren zehaztapena irakasgai orokorretatik lantzen da: Teoria eta Historia, Psikologia, Soziologia, Didaktika eta Antolaketa, Ikerketa Metodoak, Irakaskuntzen Edukiak eta Orientazioa.

Bernalek azaldu zutenez, irakasleen hasierako prestakuntzaren erronka nagusia “hezkuntzaren ikuspegi osoa ematea da, ikasle bakoitzak hezkuntzako gainerako zikloen errealitatea ezagutzea. Gradu guztiek hezkuntza inguruaren eta bertan parte hartzen duten eragile eta subjektu guztien ikuspegi zabala eman dezaten ahalegintzen gara, irakasleak gizarte eragile izan daitezen, ingurura egokitzeke ez ezik inguru hori aldatu eta hobetzeko”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Miguel Rodríguezek **Haur eta Lehen Hezkun-**

tzako irakasleen hasierako prestakuntzak eta Bigarren Hezkuntzako irakasleak dituzten aldeak azpimarratu zituen. Esan zutenez, alde nagusia da Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleena batez ere prestakuntza psikopedagogikoa dela, helburua abstrakzioetik “irakasten irakastea” izaki. Eta Bigarren Hezkuntzan, oster, pisu handiena diziplinen edukiak duela eta, ondorioz, ziklo horretako irakasleen prestakuntzak esparru psikopedagogikoan gabezia gehiago dituela. Bigarren Hezkuntzan irakasteko prestakuntzaren desabantaila azaldu zuen Miguel Rodríguezek: “Eztabaidaren gakoa da edonork egin dezakeela Bigarren Hezkuntzako masterra eta irakasle bihurtu. Horren abantaila da irakasleek diziplinen ezagutza zabalak dituztela, baina desabantaila bat ere badu, irakasteari buruzko hasierako prestakuntza ez dela aurreko zikloetakoa bezalakoa”. Halaber, Miguel Rodríguezek **irakasleen hasierako prestakuntzarako abiapuntuko hiru alderdi** aipatu zituen:

- **Prestakuntza humanistiko eta zientifiko sakonaren beharra:** “ezjakinek ezin dutelako erakutsi”.
- **Jarraipen zikloen sorrera:** “maisu-maistrak eta irakasleak egungo egoerarako eta datorrenenerako prestatu behar ditugu. Horregatik, irakasle izateak esan nahi duenari jarraitasuna eta indarra ematen dion hori berreskuratu behar dugu”.
- **Jakintza zientifikotik irakasten jakierako transposizio didaktikoa Bigarren Hezkuntzako irakasleengan:** “Hezkuntzaren erreformek aintzat hartu beharko lituzkete irakasleak eta neurtu zer nolako eragina duten hezkuntza egituretan, hezkuntzaren euskarri teorikoaren funtzionamenduan eta ikasgeletako zehaztapenean. Hezkuntzaren erreforma asko lehenengoaren eta bigarrenaren alderdietara mugatzen dira, hirugarrenari hainbeste erreparatu gabe. Horrek PISA probekin lotura du, izan ere, ez dute ia ezer esaten ikasleek ezagutza mailari eta aurreragoko gaitasunari buruz. Metodologia konduktista aplikatzen ahal da eta oso emaitza onak ateratu. Eta helburua ez da ikasleek emaitza onak ateratzeko, bizi profesionalen emaitza onak lortu ditzaten baizik”.



MAHAI-INGURUA

Eskolak behar dituen irakasleak

Testua: Nuria Morales Benito,
Nafarroako Unibertsitateko
Kazetaritza graduako ikaslea

Hezkuntza sistemako eragile desberdinek (guztiak irakasleak) parte hartu zuten:

Isabel Beltrán, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko hezkuntza eta prestakuntza zerbitzuaren ordezkari gisa.

Pedro Baile, familien ordezkari gisa; Nafarroako CONCAPAren eta Carmelitas Vedruna ikastetxeko guraso elkartearen burua da.

Ricardo Abete, irakaskuntza pribatuko SEPNA-FSIE sindikatutik.

Juan Carlos Ciria, zuzendarien ordezkari gisa; Tuterako ETI IIPko zuzendaria da.

ISABEL BELTRÁN

Irakasle lana, zaila eta eskakizun handikoa

Irakasle lana, zaila eta eskakizun handikoa. Dagoeneko inork ez du ikusten irakaslea talde bat atenditzen duen norbait bezala, aitzitik, jakina da goizetan ikastetxera ai-

legatu eta ikasleak eta familiak atenditu behar dituela, hezkuntza erkidegoaren gainerakoekin lankidetzan arituz eta gizartean bere jardunaren arrastoa utziz. Orain gizarte osoak parte hartzen du hezkuntzan, denek dute hezkuntzaz zer esanik, hezkuntza erkidegoaren partaide izan zein ez.

Ikastetxera ailegatzean, irakasle batek **ataza konplexu jakin batzuk** burutu behar izaten ditu: lehenik, bere arloa programatzea, alegia, ikasturteko programa prestatzea esleitu dioten taldearen arabera, taldearen ezaugarri zehatzei egokitu. Bigarrenik, ikasgela programatzea, hau da, eskolen egunerokoa modu jarraituan programatzea eta birprogramatzea. Hirugarrenik, tutoretzak programatzea, hots, ikasleei orientazioa emateko eta banakako jarraipena egiteko irakasle taldearekin egiten diren bilerak. Azkenik, familiekin elkarlana egin behar du, baina kasu batzuetan ez da erraza familiak ikastetxera joatea.

Lan horiei gehitzen zaie **ikastetxeko plan komunetan** parte hartzea, besteak beste, ikastetxeko urteko programazioan, aniztasunari erantzuteko programazioan, prestakuntzakoan, tutoretzakoan eta hobekuntza planean. Bestetik, orain kanpotik ebaluatua den irakasleak ikastetxearen urteroko hobekuntza plana prestatzeko prozesuan parte hartu behar du.

Irakasle ona izateko behar diren gaitasunak

Gaitasunen eskakizuna.

- Gaitasun zientifikoa: erakusten den gaia ongi ezagutzea, ezin da eman menperatzen ez den irakasgai bat, nahiz eta askotan gertatzen den.
- Gaitasun didaktikoa: nola irakatsi eta metodologia berriak nola prestatu. Irakasleak gero eta anitzagoak dira alderdi guztiei dagokienez.
- Berrikuntza gaitasuna: ikasleen beharren arabera, metodo eta proiektu berriak prestatu eta aplikatzea.

- Hizkuntza gaitasuna: helburua irakaskuntza elebiduna aurrera eramatea da.
- Gaitasun digitala: teknologia berriak menperatzea.

Eskakizun soziala: hainbat gaitasun, hala nola, pertsona barnekoa, pertsona artekoa, enpatia, elkartasuneko, gizartekoa eta harremanetako. Aipagarria da zerbitzura **prestakuntza emozionaleko** eskaera asko iristen direla: oso garrantzitsua da ikasgelan bizikidetzat giroa bultzatzea, enpirikoki frogatuta baitago hezkuntza emozionala baliatu eta giroa hobetzen denean, zuzenean hobetzen direla emaitzak. Zentzu horretan, behar-beharrezkoa da ikasleekiko **enpatia**, izan ere, irakaslea haien tokian paratzen denean, haien jarrerarekin ados egon gabe ere, ikasleak ohartzen dira beraiek ulertzeko egiten duen ahaleginaz eta, hala, ikasleen jarrera eta irakaslearekiko haien elkarlana hobetzen dira.

Lidergo eskakizuna: zuzendaritza taldeak ez ezik, tutoreek eta irakasleek ikasgelan lidergoa izan behar dute.

Prestakuntza sareen hazkundera

Gero eta gehiago dira hezkuntzaren arlo desberdinetan irakasleen prestakuntza hobetzen diharduten **eragileak**: Departamentuko aholkulariak, hainbat gizarte erakunde, sindikatuak, Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa, Itxaropenaren Telefonoa... Prestakuntza jadanik ez da ulertzen ezagutza multzo bat izatea bezala, baizik eta hasierako prestakuntza eta gero behar den praktika gidatua moduan.

Aipatzekoa da prestakuntza prozesu hau sustatu duen **ikastetxe sarea**. Zehazki 15 kalitate sare daude, 199 ikastetxek osatuak, eta hor batzen dira ikastetxeetako kalitatearen arduradunen eta koordinatzaileen lana, eta haiekin lan handia egiten duten Departamentuko kalitate aholkulariena.

Nafarroako irakasleen lorpenak

Lan sareak irakasleek harago hedatu dira, haien ikastetxe osora zabalduz, eta familetara ere ailegatu dira. Irakasleek gaitasunetako prestakuntza es-



katzen digute. Heldu den urtean garatuko dugu programa hori. Bereziki nabarmen-tzekoa da hezkuntza emozionaleko pres-takuntza: irakasleen bokazioa garatzen saiatzen da ez daitezen hezkuntza sis-tematik aparte gelditu irakaslanean hu-tsuneak izateagatik. Lan hau, hasierako prestakuntzari ez ezik, etengabeko pres-takuntzari ere badagokio.

Prestakuntzaren inguruko adierazle batzuk:

- Prestakuntza jarduerak 738 ikastetxe-tik egin ziren irakasleen beren ekimenez. Prestakuntza honen balorazio ona jaso da.
- 14.000 ziurtagiri baino gehiago.
- 35 ikastetxek aitortpena lortu dute Depar-tamentuaren SGCC arauaren arabera.
- 10 ikastetxe ISO 9001 egiaztagiriarekin.
- 18 ikastetxek EFQM zigilua lortu dute.
- 41 ikastetxek zerbitzuen gutuna prestatu dute.
- Gogobetetze inkestek 7tik gorako balorazioa jasotzen dute.

PEDRO BAILE

Zein da gurasoek irakasleez egiten duten balorazioa?

Irakasleak balioetsi beharko lirateke hezkuntza sistemaren eta ikastetxeen baliabide nagusi gisa, giltzarria baitira. Kalitatezko, motibatutako eta balioetsi-tako irakaslerik gabe ez dago zentzudun hezkuntza sistema eraginkorra lortzerik. Hezkuntza sistemak lau elementu ditu: irakasleak, ikasleak, Administrazioa eta gurasoak. Horietako batek huts eginez gero, sistemak huts egiten du, eskatu egiten da.

Guraso elkarteko kideek irakasleen gaine-ko balorazioak jaso ditugu: gurasoek uste dute **irakasleek beren burua gutxiesten dutela**, beren profesionaltasuna ez dela ai-tortzen pentsatzen dutela. Beste arazo bat **soldaten** gaiak duen aldarrikapen alderdia da; ez da funtsezkoena baina bai garran-tzitsua. Bestetik, irakasleak zenbateraino asebetetzen dituen egiten duten lanak: batzuetan **bakarrik sentitzen dira beren ekimenetan**, sentitzen dute ez dutela ja-sotzen ez ikastetxearen, ez gurasoen, ez

ikasleen babesik. Gainera, irakasleen eta ikasleen **arazoen konponbidea oso mo-tela** da. Arazo honi irtenbidea aurkitzeko moduak bilatu behar dira. Zentzu horretan, aipatzekoa da azken 50 urteetan gertatu-tako funtsezko aldaketa: lehen irakaslea-ren alde egiten zen arazo bat zegoenean, orain **irakasleen autoritateari erasan zaio** arrazoia ikasleei emateko joera dagoelako.

Zer eskatzen dute gurasoek?

Muinean hiru gai:

Irakasle bokazioa: sustatzen eta garatzen ahal da. Bokazioa zera da, irakatsiz goza-tzea. Ez da faktore genetikoa, aitzitik, beran-tiarki bultzatzen ahal da. Ezinbestekoa da irakasleek bokazio hori izan eta sentitzea.

Profesionaltasuna, irakasleei dagokien es-timutik beretik. Hori irakasleen gaitasunen baliotik, prestakuntzatik eta birziklatzetik lortu behar da, onenak bakarrik izan dai-tezen irakasle.

Dedikazioa: kontua ez da irakastordua be-tetzea, kontua da ikasle eta gurasoei arreta ematea, ikertzea... eta ordainduak izaten ari ez diren ordu horiek guztiak kontuan har-tu behar dira.

Laburbilduz, inongo legerik ez du hau konponduko irakasleok berok hezkuntza kultura hau eraiki ezean. Hezkuntza maila igotzeak, emaitzen indizeez harago, aipatu-tako hezkuntza sistemaren lau sektoreen inplikazioa eskatzen du.

RICARDO ABETE

Nolako irakasleak behar dira?

Dagozkien betebeharrekin eta agintzen zai-zkienekin **konprometitutako irakasleak**, fi-nean, unean uneko legeen eta behar diren ikaskuntza prozesuen arabera hezkun-tza proiektua betetzen dutenak. Hor sar-tzen dira ere ikastetxe bakoitzaren balio berekiak, ikastetxe publikoa, pribatua edo itundua den.

Irakasle konprometituak tentsiopean bizi dira hezkuntzaren errealitatean **etengabe**



ereduak kontrajartzen direlako: irakaskuntza ulerkorra ahaleginaren irakaskuntzaren aurrean; irakaskuntza laikoa irakaskuntza erlijiosoaren aurrean; irakaskuntza publikoa irakaskuntza pribatuaren aurrean, eta abar luze bat.

Hori nola konpondu? Oraindik lortu ez den **hezkuntza itun** baten bitartez. Erabat ezinbestekoa da sistemaren egonkortasunerako, profesionalen eta gurasoen latsaitasunerako eta ikasleek behar bezala aurrera egin dezaten. Eta itun hori prestatzeko lanean hezkuntza sistemako eragile guztiak sartu behar dira: gurasoak, alderdi politikoak, profesionalak, ikasleak eta sindikatuak. Itun horrek aitortu beharko luke **hezkuntza guztion ondasuna eta gizarterako konpromisoa** dela, honakoen bidez:

- Eskola sistema librea, mendekotasunik gabea.
- Hezkuntza kalitatearen bilaketa.
- Sistema libre eta demokratikoa, non denentzako ikastetxeak sortuko diren denen diruarekin.
- Gurasoei seme-alabendako nahi duten ikastetxea hautatzeko aukera emanen diena.
- Onartu dadila sexuaren arabera bereizitako hezkuntza, bietako bakoitzaren alderdiak indartuz, hezkuntza eredu bereizitako hezkuntzak urratutako genero bakarreko eredu batz bezala ikusi gabe. Era berean, hezkuntza mistoaren eredu errealtate bihurtu behar du.
- Irakasleak tolerantak izan daitezela eta aberastu egin ditzala aniztasunak, denak berdinak garen hezkuntza prozesu anitz batean elkarrekin bizitzeak.

Zer eskatzen dute irakasleek?

- Prestigioaren bidez aitortutako gizarte estatusa, ordainsariei ere eragiten dien zer bait.
- Prestakuntza jaso ahal izatea; hori baliabideen bitartez bakarrik da posible: ezin da prestakuntza teknologikorik jaso ikasgeletan baliabide elektronikorik ez bada, adibidez.
- Beren lana hobeki ulertzea.
- Kalitatea lortzeko hautaketa prozesu

bat, oposizioez eta elkarriketa pertsonalez harago doana.

Sistemaren kalitatea irakasleen kalitatearen arabera da. Kalitatezko irakaslea honela definitzen dugu: etikoki prestatutako norbanakoa, lantalde batean xertatzeko gaitasuna eta ezagutza espezializatuak dituen. **Nola lortu kalitatezko irakasleak?** Ezinbestekoa da irakaslanaduintzea. Horretarako ikasgela barruko irakastorduek ezin dute izan beren lanaren funtsezko egitura, horretatik aldendu beharra dago. Gainera **irakasle bakoitzeko ikasle gutxiago** izan daitezen bultzatu behar da, aniztasunari hobeki erantzuteko, eta banakako jarraipena sustatu behar da, irakaslan ikaslearentzako coachinga bezala ulertuz. **Eskolatik kanpo lan egindako orduen** kopurua baloratu behar da (azterketak zuzentzea, gurasoei etxetik deitzea, irakasle bilerak eskolatik kanpo, eskolak prestatzea) eta baita **curriculumetik kanpoko jarduerak** ere, adibidez, ikasleekin egindako irteera kulturalak, txangoak, kanpaldiak, etab.

Hitz gutxitan esanda, konprometitutako irakasleak inguru duin eta kalitatezkoan baino ezin dira prestatu, behar bezala prestatuak eta hautatuak izan behar dute, etikoki prestatuta egon behar dute, eta taldean lan egiteko gaitasuna eta ezagutza espezializatuak izan behar dituzte.

JUAN CARLOS CIRIA

Irakasleentzat harrotzekoa da ikasleei zer bait ematea, horregatik da garrantzitsua ikastetxeen zuzendariak irakasleak izatea eta ez kudeatzaile edo espezialistak. Ikasgelak, tutoretza eta plangintza dira ikastetxeetako mugimendu guneak.

Irakasleek ikasgelan behar dutena.

- Irakasgaia ezagutzeaz gain gaitasun pedagogikoak izatea.
- Adi lehenengo eskola egunari: ikasleek argi izan behar dute zein diren arauak eta beraiekin gauzak adostu daitezkeela arrazoituz gero. Ebaluazioaren eta kalifikazioaren artean bereiztea: ebaluazioa irakaslearen inplikazioa eskatzen duen

prozesu jarraitua da. Ikuspuntuak berritu behar dira.

- Ikaskuntza jarduerak diseinatzea.
- Irakaslearen arteko koordinazioa, katedra askatasuna gorabehera. Elkarlanarekin bakarrik lortuko da eraginkortasuna.

Irakasleek tutoretzan behar dutena:

irakasgaian eta tutoretzan. Tutore on batego ikasleak eta ebaluaziorako erabiliko diren metodologiak ezagutzen ditu. Ikaslearekin eta familiarekin elkarriketa funtsezkoa da ikaslearen inplikazioa lortzeko. Irakasleak hezkuntza sistema uztea ekiditen du horrek.

Irakasleak irakasgaiaren departamentuetan: irakasle berriei laguntza eta aholkua.

Irakasleak ikastetxean: kalitatezko kudeaketaren giltza plangintza da, helburu bat finkatuta izatea eta jarraipena egitea, hobekuntzak proposatzeaz gain. Beste kudeaketa maila bat da irakasleak maila guztietan ezagutu eta errespetatu behar duten antolakundean murgilduta izatea, non behar diren hobekuntza guztiak proposatzea posible dakien. Irakasleak kalitate sistemaren beraren partaide izan behar dute eta sistemak burokratikoa izan beharrean helburuak eta proposamenak betetzeko gai izan beharko luke.

Ikasgelan sustatu beharko liratekeen gaitasunak

- Ikasgelako gatazkei aurrea hartu behar zaie eta konpondu ahal izateko bitartekoak izan.
- Eskolak prestatu behar dira ikaslearen ikaskuntzarako irakaskuntzaren kalitatearen alde eginez.
- Talde lana, inplikazioa eta jardunbide egokiak (aztura osasungarriak, berrikuntza, ingurumenarekiko errespetua).
- Bokazioa garatzea.
- Lanbideari aitorpena.
- Berrikuntza, sormena eta ekintzailatza.

Pertsonak eta profesionalak prestatzea

helburu: ageriko eta funtsezko eginkizun hau, hezkuntzaren esentzia, aldatuko digun makinari ez da.



IRAKASLEAK NAFARROAKO IRAKASKUNTZA ITUNDUKO IRAKASLEEN EGOERA

Mª Paz Murillo

Sare itunduko irakaslea

Urtero legez, hemen dugu udazkena, aurten hasieran astun eta beroa izan dena. Udako eromena atzean utzi dugu eta harekin batera amets beti bukatu gabe eta urriak, hondartza, mendia, opor-rrak, familia...

Ikasturte hasiera guztietan bezala, iraila da protagonista eta haren lagun dira presak, iratzargailua, trafikoa, ohiko errutina, eskola, ikasleak...

Udako atseden merezitakoaren ondoren, natura negua iragateko prestatzen eta lasaitzen denean, hezitzaileok (beti ur-lasterraren kontra) eztanda egiten dugu udaberria balitz bezala. Ilusioa berriturik, garaia da proiektuak egiteko, erronkak eta xedeak mahaigaineratzeko, planak prestatzeko, lankideekin berriro elkartzeko, beste ikastalde batekin ibilbidea hasteko...

Ikasturte hasiera guztiak bezala emozioez beteriko unea dugu hau. Itsasoratu berria den txaluparen hondoratzearen erdian, Nafarroako Eskola Kontseiluak eskaintzen didan behatoki honetatik **zuekin zenbait hausnarketa partekatu nahi nituzke, Nafarroako irakaskuntza itunduko irakasleak gaur egun jasaten ari diren benetako egoeraren bi alderdi garrantzitsu bezain kezkarri zuei adierazteko.**

Irakasleen eta irakasle ez direnen soldatekin eta erosketa-ahaltenaren ga-

lerarekin du zerikusia lehenak. Horren arrazoia zein den erraz ulertzen da. Ekar dezagun gogora 2010etik 2013ra bitarteko ikasturteen bilakaera. **2010eko ekainean** lehen soldata-jaitsiera izan genuen (Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleek %4,70ekoa eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakasleek %6,40koa).

Lehen eraso bortitz horri gehitu behar zaizkio **KPIa azken urteetan ez eguneratzea eta Nafarroako 2012ko Akordioa, SEPNA sindikatuak eta Patronalak sinatutakoa. Lanaldia handitzen duen estatuko dekretua** aitzakia modura hartuta, **soldata jaistea erabaki zen (%2,5 irakasleei eta %2 irakasle ez direnei)**. Denborak erakutsi du jaitsiera hori **bidegabea** izan zela, beharrik gabe hartua, eta, **gaitzesgarria eta zitala irakasle ez direnendako**, kontuan izatekoa baita azken hauek soldata kaskarrak dituztela eta aipatutako dekretu horrek ez zituela ezertarako ere ukitzen. Ez dezagun ahantz! Akordio hori **2014ko abuztuaren 31 arte berritu da.**

Eta honek guztiak zer eragin du irakaskuntza itunduko langileek jasotzen duten soldatan? **Erosketa-ahalmena %16 txikiagoa izatea, askotan. Ez, ez gara oraino "mileuristak"** (halaxe segituz gero egoera horretara iritsiko ginela esan zuen norbaitek protesta-mobilizazioetan). Alabaina, egoera horretatik gero eta hurbilago gaude eta, are okerra-

goa dena, ez badugu konpontzeko deus ere egiten, esan daiteke nahitaez hartara garamatzan bidean gaudela.

Azken urteotako akordioetako alderdi asko hemen aipa ditzaket, **eskubideetan hamarkadak atzera eginarazi digutenak eta laneko baldintzak asko okertu dituztenak.**

- Akordioan mantentzen da **57 urterekin har daitekeen lanaldi murrizketa, baina ez denendako**. Aurretiko erretiro partziala eskuratzeko baldintzak bete behar dira. Baldintza hori betetzen ez dutenen murrizketa 2 ordukoa da.

- Era berean, emakumeek 38 urte eta gizonek 37 kotizatu ondoren klaserik ez emateko zuten eskubidea galdu da -eskubide hori aurreko txanda-kontratuan zegoen-.

- Halaber, akordioaren arabera, etapa guztietan, **ordezkapenak** ez dira ordainduko baja-egunetik hasita 10 eskola-egun igaro arte (2 aste natural). Egoera horretan, esaterako, baja horiek betetzeko, Haur Hezkuntzako haurrak bi astez egon daitezke egunean irakasle bat baino gehiagorekin (gu konbentzitzen saiatzen dira esanez horrek ez duela hezkuntzaren kalitatea hondatzen...).

- 2012ko urrira arte itxaron behar izan genuen **2010etik 2012ra bitarteko soldatak** onartu arte. Horri eskerrak irakasle ez zirenek ere **itxaron** behar izan zuten beren soldatak eguneratzeko eta



urte horietako atzerapenak kobratzeko.

- Irakasle ez diren langileek ere ez dute ordainketa delegaturik.
- Logopedek 34 eskola-orduko zama-rekin segitzen dute eta, diplomadunak izanagatik ere, horrek ez die aukerarik ematen lanaldi osoa izateko eta arrazoi horregatik hilean gutxiago kobratzen dute.

Zilegi bekit bereziki kezkatzen nauen gai batean sakontzea, zeina, nire ustez, lo-zorroan dagoen sumendi bat bezalakoa den: **ikastetxe itunduetako irakasleen LAN-KARGA EZ-LEKTIBOA.**

Zientzietako irakaskideok esanen genuke **soldatekiko zeharka proportzionala den** gaia dela. Soldatak ez bezala, lana proportziorik gabe goraka egiten ari da.

Goazen bada gaia sakon aztertzeraz. **Ordu ez-lektiboak** zer diren argitu behar dugu.

Gure hitzarmenean argi esaten da zer den lan ez-lektiboa: **klaseak ematea ez den bestelako edozein irakaslan**: klaseak prestatzea, azterketak zuzentzea, gurasoak hartzea; programatzea; bileretara eta prestakuntza ikastaroetara joatea; Eguberriak eta ikasturte amaierako ekitaldia prestatzea; korridoreak apaintzea; bakearen eguna; ikastetxearen festa...; eta beste hainbat eta hainbat.

Hain da zaku handia ezen, lege-arazoak

saihesteko, esaldi hau gehitzen duen: **ikastetxean egiten direnak, eskola ordutegiaren barnean.** Hau da: **ikastetxetik kanpora 13:30etik edo 17:30etik aurrera** egiten dugun **oro ez da lan ez-lektiboa. Eta denok ongi aski dakigu ia-ia irakasle guztiek etxean zernahi lan egiten dutela horrekin beren denbora eta bizitza pribatuak hipotekatu behar badituzte ere.**

Idatzitakoak ez du errealitatearekin zerikusirik. Denok ongi dakigu errealitatea oso bestelakoa dela. Gure buruari ondoko galdera hau egiten diogu: **irakas-kuntza itunduko irakasle batek astean benetan zenbat ordu ez-lektibo egiten ditu?**

Zenbait ikastetxek, enpresa batzordeen eta sindikatuetaiko ordezkarien birtatez, zuzendaritzei iradokizun hau egin diete: irakasleen artean azterlan bat egitea irakaslanak eskatzen dien lana egiteko zenbat denbora behar duten jakiteko. Azterlana egin den ikastetxetan emaitza aitzakiarik gabekoa izan da. Ikasturterako ezarritako 330 ordu ez-lektibo baino gehiago egiten da, kopuru hori bikoizten da eta, batzuetan, baita hirukoiztu ere.

Eta ez da izanen bada lan anitz barne hartu nahi ditugula eta garrantzitsuena den gure hezitzaile lana urrun ikusten dugula. Bidean galtzen gara idazkari, teknikari, programatzaile... lanetan; ez

dugu hitzik aski proiektuez, hobekuntza planez... hitz egiten dugunean. Alabaina, ez digute gure lanaren muinean aurrera egiten uzten, hots, **ikasleekiko harreman zuzenean eta haien munduarekiko eta arazoekiko loturan.**

Egunez egun presio soziala gero eta handiagoa da. Irakasleengandik dena espero dugu. Gero eta gehiago eskatzen diegu: prestakuntza behar guztiak bere gain hartu behar ditu: hizkuntzak, bakea, kontsumoa, irudia, bide segurtasuna, bizikidetzatza, ingurumena, balioak...

Irakaskuntza itunduko irakasleak eten-gabeko galbidera garamatzatenez, hausnarketa honekin nahi nuke hemen elkarrizketa proposatu, behingoz Irakaskuntza Itunduko Mahaia era dadin. Gaur inoiz baino beharrezkoagoa da akordioetara iristea, elkarrizketa eta eztabaidarako mahai bat sortzea eta hartan Gobernaren, Patronalaren eta sindikatuen artean ukitzen gaituzten gaietan adostasunera iristea.

Ados baikaude etengabeko hobekuntzak pertsona eta gizarte moduan aberasten gaituela hezkuntzako arlo orotan.

Azken finean, bikaitasunaren bila elkarrekin egin behar dugu bidea.

M^a Paz Murillo

Irakaskuntza itunduko irakaslea



XXI. MENDEKO IRAKASLEAK

José Miguel Gastón
Amaia Zubieta

STEE-EILAS sindikatua.

Irakasleen eginkizunak gai nagusietako bat izaten jarraitzen du hezkuntzaren gaineko eztabaida guztietan. Kanpoko ebaluazioek espainiar Estatuarentzat behin eta berriz ematen dituzten emaitza “eskasen” argitan, edonork eraikitzen ahal ditu ahoz aho transmititzen diren eta irakaslanari ospea kentzen dioten dogma gutxiesgarriak. Une askotan, iritzi horiek arreata galarazteko kezko gortina baino ez dira, hezkuntza zein gizarte eta politika mailan beren erantzukizunei kasurik egin ez dietenei kontuak eska ez diezazkieten. XXI. mendean, historia osoan zehar bezalaxe, irakaslea izatea erronka zirrargarria da. Pertsonekin eta pertsonekin batera haien hezkuntza prozesuan (pertsona bezala zein alderdi akademikoan eta prestakuntzakoan) lan egiteak eskatzen du alde zuzenetik jabetzea arduraz horrek duen muntaz. Hori dela eta, lanbide bokazionala izan beharko luke. Zenbaitetan administrazioak nolakotasun horri heltzen dio irakasleoi ahalegin gehiago eskatzeko, baita gutxien gutxieneko lan baldintzak urratuz ere.

Balio unibertsaletan hezten dugu, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren esparruan: ekitatea, justizia, aukera berdintasuna, askatasuna, begirunea, elkartasuna, lankidetzeta...; balio horiek guztiak gure ikasleei transmititu behar

dizkiegu irakaslanaren bitartez baina baita bizi garen gizartearekiko dugun gure konpromisotik abiatuta ere. Akademikoki prestatzen ditugu ikasleak; jakintzak transmititzen dizkiegu eta tresna baliagarriak ematen ezagutza bilatzeko, aztertze, barneratzeko eta gerora lanean aplikatzeko. Hezkuntza eta prestakuntza jardun osagarriak dira, uztartu beharrekoak, elkar abarasteko eta komunitatean bizi nahiko duten eta horretarako gai izan diren pertsona osoak eraikitze aldera.

Lan hori behar bezala egin ahal izateko, irakasleek hasierako prestakuntza egokia jaso behar dute, eta prestakuntza hori etengabe berritu behar da. Prestakuntza hori, unibertsitateko ibilbidean zehar zein lan esparruan, zientifikoki eta didaktikoki eguneratu behar da irakasleak gai izan daitezen beren lana etengabe eraldatzen ari den munduan ondoz ondoko belaunaldiak hezteko erronkara egokitze. Prestakuntza horrek ezin du albo batera utzi, orain inoiz baino gutxiago gainera, arestian aipaturiko balio unibertsalen babesak egungo munduan diren desparekotasun sakonak zuzentzeko duen garrantziaren gaineko kontzientziarazioa.

Zertan izanen da irakaslan LOMCE-rekin? Zehatz-mehatz ez dakigu, ez

dakigulako zein ibilbide izanen duen LOMCEk bere asmo ideologikoen susmoa badugun arren. Aintzat hartzen badugu lege horren jagoleen arabera “hezkuntza kalitatea neurtu behar dela ikasleen emaitza [akademikoa –guk esana–]” eta lortutako “enplegarritasun” maila begirata, ondorioztatu dugu hezkuntzako lege “berriak” nagusiki bultzatzen duen prestakuntza prozesuak alderdi utilitaristei ematen diela garrantzia eta ez hezkuntza prozesuak izan beharko lukeen izaera osoari. Eskola arrakasta edo porrota ikasleek duten talentuarekin eta emaitzekin lotzeak, aztertu gabe zer nolako testuinguru sozioekonomiko eta kulturaletatik datorren, aintzat hartu gabe ikaskuntza prozesuak baldintzatzen dituzten alderdi horietako desparekotasun egoeren zuzenketa, esan nahi du biztanleriaren sektore handiak ataka gaitzotan uztea.

LOMCEk jakinaren gainean baztertzen du prestakuntzaren izaera osoa, argi eta garbi makurtzen baita merkatuaren esanetara. Izan ere, gero nolabait zehaztu zuten arren, LOMCEren aurreproiektua honela hasten zen: “hezkuntza da herrialde baten ekonomiaren lehiakortasuna eta oparotasuna bultzatzen duen motorra”. Asmoen aitortpen argia da, “eztabaida ideologikoetatik” ihes egin beharrean, joera neoliberal nabarmena

areagotzen duena. Proiektu hau kudeatu beharko duten irakasleek, ondorioz, soslai teknikoagoa izan beharko dute, espezialista izan, irakastea egokitzen zaien zientziaren esparrua are hobeki menderatu, eta arlo zientifiko jakin baten ezagutza indartzeko proiektuak diseinatu eta gauzatu beharko dituzte mota jakin bateko ikasleak erakartzeko. Irakasleak teknikoagoak baina gizatasun gutxiagokoak izanen dira eta gerta liteke irakasleen eguneratze zientifiko eta didaktikorako estrategiak multinazional handiek inposatuta etortzea, erremediorik jarri ezean, enpresa horiek hezkuntza maila desberdinetako proiektuak finantzatu litzaketeelarik.

Gure ustez irakasleek izan beharko luketen soslai ez dator printzipio horiekin bat. Etengabe aldatzen ari den eta desparekotasunez betea den (herrien artean, klaseen artean, pertsonen artean edo sexuen artean) egungo munduan, ezinbestekoa da elementu zuzentzaileak bultzatzea eta horiek hezkuntza prozesuaren bitartez transmititu behar dira. Eta lan horretan jardun behar du behar dugun irakasle-riak. Jakina, prestakuntza zientifikoa ez da gutxietsi behar, baina gogoan izan beharko genuke irakasleen ezagutza zientifikoa ez dela merkatuen zerbitzura egon behar, pertsonen zerbitzura baizik, bestelako gizarte ereduak diseinatu ahal izateko, non ekitatea eta justizia gailenduko diren, non ez den beharrezkoa izanen irakasleak aldareetara goratzea, “autoritate publiko” bihurtuz inguratzen dituen mundutik babesteko. Irakasleek beren prestakuntzarekiko duten konpromisoa, balio jakin batzuk bultzatzearekiko konpromisoa, ikasleen hezkuntza prozesuarekiko konpromisoa, eta bizi diren eta lan egiten duten komunitatearekiko konpromisoa dira ospe ona lortzeko “beharrezko” autoritatea emanen dieten faktoreetako batzuk, ospea gobernuaren dekretuen bidez erdietsi beharrik gabe.

José Miguel Gastón, Amaia Zubieta.
STEE-EILAS Sindikatua.





NAFAR IRAKASLERIAREN GAITASUN- PRESTAKUNTZA

Isabel Górriz Noáin
Javier Izcue Argandoña

Prestakuntzaren eta
Kalitatearen Atala

SARRERA

Edozein hezkuntza sistema hobetzeko ongi prestatutako irakasleak behar dira, sormenezko motibazioa eta konpromiso irmoa dutenak. Hezkuntza erkidegoak onartzen du irakasle onik gabe askoz zailagoa dela ikasle onak izatea.

Azken urteetan, Europako Batzordea moduko erakundeek, Estatuko Eskola Kontseiluak eta hainbat hezkuntza sistematako azterlan eta esperientziek gomendioak luzatu dituzte eta ondorioak atera, irakasleen prestakuntza hobetzeko helburuarekin. Ekar ditzagun horietako batzuk gogora.

LANBIDEA, JAULKITZEA, IRAKASLEA⁽¹⁾

Bitxia ematen ahal du irakaslana lanbidea dela gogoratu beharrak. Ez al dute ba biek, *lanbidea*⁽²⁾ eta *irakaslea*⁽³⁾ hitzek, erro bera dutela erakusten? Bien jatorri komunak bi gako gordetzen ditu: bata morala, egia esatea (*aitortzea*⁽⁴⁾ hitza gogoratu), eta bestea birtuala, komunikatzeko eta jendaurrean mintzatzeko gaitasuna (*jaulkitzea*⁽⁵⁾).

Lanbidea kontzeptuari dagokionez, gogorra dezagun definizio aipatuenetako bat,

Australiako Lanbide Elkargoen Erakunde Nazionalak emandakoa; honela itzul genezake: “Lanbide bat da estandar etiko batzuetara atxikitzen den pertsona talde diziplinatua, goi mailako ikerketatik, hezkuntzatik eta jardunetik datorren jakintza multzo zabal bateko ezagutza eta trebetasun berariazkoak dituen eta jakintza hori aplikatu eta trebetasun horiek besteen onerako erabiltzeko prest den talde gisa aurkezten dena gizartean, gizarteak halakotzat onartzen duelarik.” Definizio horren oinarrian dago bertan berariaz aipatzen den betekizuna, lanbide osoaren jarduerak zuzenduko dituen kode deontologiko baten beharra. Noski, kode hori norbanakoak berez dituen obligazio moralez harago doa. Kode horrek langileak bere lankideekiko eta jendearekiko oro har duen jokabidea ere barne hartzen du. Gainera, komunitateak estatutu hori ezagutzen eta onartzen du.

Zer printzipio etikok, zer ezagutzak, zer trebetasunek, zer esperientziak osatzen dute gure garaiko irakaslanaren muina? Nolako irakasleria behar du gure gizarteak?

(1) Itzultzailearen oharra: profesión, proferir, profesor jatorrizkoan (gaztelaniaz)

(2) Itzultzailearen oharra: profesión jatorrizkoan

(3) Itzultzailearen oharra: profesor jatorrizkoan

(4) Itzultzailearen oharra: confesión jatorrizkoan

(5) Itzultzailearen oharra: proferir jatorrizkoan

IRAKASLANEKO FUNTSEZKO GAITASUNAK

Europako Batzordeko Hezkuntza Kontseiluak irakaslana ulertzeko moduz **gomendio** batzuk ematen ditu:

- Irakaslana lanbidetzat jo behar da.
- Horretan aritu nahi dutenek jarduera horrekin loturiko ikasketetako gradua lortu beharko dute unibertsitateetan edo goi mailako ikastetxeetan, honakoak eskuratzeko:
- Irakatsiko den irakasgaiko ezagutzen corpora.
- Ezagutza pedagogikoa.
- Prestakuntza didaktikoa.
- Hezkuntza ikerketako praktika, jarduerak hobetzeko.
- Ikasleak gidatu eta laguntzeko tresna eta baliabideak erabiltzeko gaitasuna.
- Hezkuntzaren gizarte eta kultura izarearen onarpena.
- Irakaslana txertatu behar da bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren euro-

Common European Principles for Teacher Competences and Qualifications. European Commission. Directorate-General for Education and Culture

par printzipio sozialean eta irakasleen etengabeko prestakuntzarako eskubide eta betebeharrean.

- Mugikortasuna lanbidearen printzipioa da, dela mugikortasun espaziala (eskualeen edo herrialdeen artean), dela hierarkikoa (maila desberdinen artean) edo sektore artekoa (hezkuntzako lanbide desberdinen artean).
- Lankidetzan oinarritu behar da irakasleen, ikastetxeen eta hezkuntzan eta kulturaren eskumena duten erakundearen arteko harremana.

Irakasleen **funtsezko gaitasunak** hiru ardatzen inguruan biltzen dira: besteekin lan egitea, informazioarekin, ezagutzarekin eta teknologiekiko lan egitea, eta gizartearen eta gizartearen onerako lan egitea.

Irakaslan, hots, irakaskuntza ogibidezat jo behar bada, eta ez zerbitzuko bokazio soiltzat, lehenik eta behin prestigiodun lanbide bihurtu beharko litzateke eta erakargarri egin, talentu eta gaitasun handieneko gazteak erakar ditzan. Irakaslanak ezin du izan galduta dabil-tzan unibertsitarioentzako irteera erraza, ezta bestelako lan aukerak ixten direnerako lan iturri soila. Argi da irakasle berrientzako kalitateko hasierako prestakuntza behar dela. Horretarako garrantzitsua izanen litzateke mozketak notak eta alde aurreko ikasketa eskakizunak (hizkuntzenak, kasu) aintzat hartzea, gero profesional horien kalitatearen mesedetan.

Hezkuntza sistemak hobetzeko **talentua erakarri** beharra dago, irakasle berriak prestatu, hezkuntza erkidegoan mantendu eta irakasle horien garapen profesionala sustatu, profil profesional desberdina zehazten utziz:

- Hezkuntzako kudeaketa eta zuzendaritza
- Orientazioa
- Ikerketa eta berrikuntza pedagogikoa
- Jarduna eta irakaslan
- Irakasleen prestakuntza





Espezializazio maila desberdinek gaitasun profesional desberdinak eskatzen dituzte, denek komunean duten muinaz gain.

EBALUAZIOAK

Azken hamarkadan era askotako **gaitasunen ebaluazioak** hezkuntza sistema desberdinen arteko erkaketa eragin dute. Paradojiko, horietatik ezagunena Ikasleak Ebaluatzeko Nazioarteko Programa da, PISA siglez ezagutzen dena. Txosten horretan, ikasleen emaitzak herrialdez herrialde emateaz ez ezik, Espainiako erkidego autonomo desberdinen arteko konparaziorako adierazleak ezartzen dira. Estatu mailako eta nazioarteko emaitzen analisiaren testuinguru honen barruan Nafarroako Foru Komunitatea ageri da. Nafarroako hezkuntza sistemak betetzen duen tokiaz harago (edo sistema horren abiapuntuaz harago), PISA moduko ebaluazioak hobekuntza planak ezartzeko edo berrikusteko aukera argia dira.

Hezkuntzaren gaineko txosten askok, besteak beste Mackinsey & Co. aho-

lkularitzarenak, hezkuntza sistemak hobetzeko balio duten planak aztertzen dituzte. Nafarroaren kasua, espainiar esparruan, progresio fase batean “onetik” “oso onera” aurreratzeko aukera ematen duen sistema batena da. Helburu hori lor lezaketen neurrien multzotik irakaslana eta zuzendaritza karrera profesional bezala garatzea bezalako batzuk aipatzen dira. Horrek autonomia handiagoa eman liezaieke ikastetxeei eta, beharbada, berrikuntza eta sormen handiagoa ere bai.

Egia da Espainiako hezkuntza sistema hiru erabaki mailatan egituratuta dagoela: Estatuko legeriaren esparruan, autonomia erkidegoen eskumenetan eta ikastetxeen autonomian. Egitura horrek hezkuntzaren kalitatean jauzi kualitativoa ematen uzten ahal du. Hobekuntza prozesu honek Espainiaren kasuan aipatutako hiru maila horien beharra du eta, gainera, ikastetxeetako irakasleen eta klaustro desberdinen elkarren arteko lankidetzan oinarritu behar du.

Agerikoa da plantillen egonkortasuna eta zuzendaritza taldeen nolabaiteko

jarraitutasuna, pausatutako araudi batekin batera, hobekuntza prozesuetarako faktore garrantzitsuak direla. Horri gehitu beharko litzaioke ikastetxeetan kalitatea kudeatzeko sistemen ezarpena, Nafarroan urtetan hedatuz joan den prozesua, hezkuntza sistemen hobekuntza bultzatzeko ahalmena baitu.

HOBETZEA DA PLANA

Kanpoko ebaluazio desberdinen eta ebaluazio diagnostikoen azterketak erakusten du Nafarroako hezkuntza sistema berritzeko une erabakigarrian gaude-la. Hobekuntza planen arrakastarako ezinbestekoak dira kalitateko irakasleak.

Arestian gogoratu dugu zeinen erabakigarria den etorkizuneko irakasleen hasierako prestakuntza. Funtsezkoa da irakasleen etengabeko prestakuntzaren beharra berriro aipatzea.

Mundua aldatzen da, ikasleak aldatzen dira, eta eskolak erritmo horretan aldatu beharko luke. Irakasleak ezin dira bazter gelditu. Gizarteko erronka berriak, dile-



ma etiko berriak, gizakiaren izatearen definizio aldakorra. Eta Ramón y Cajalen herrikideak garenez, zilegi dakigu eza-gutzaren muga berrietako bat aipatzea: **neurozientzia**.

Azken hogeit urteotan, zientzia ezagutzaren burmuin-mapa osatzen ari da. Gogora ditzagun, adibidez, Mel Levinnek aipatutako funtzio neuroebolutiboak: arreta, memoria linguistikoa, espazioaren antolaketa, sekuentzien antolaketa, mugimendua, goi mailako pentsamendua, pentsamendu soziala. Elementu horiek guztiek eginkizun erabakigarria dute ikaskuntzan (*adimen desberdinak, ikaskuntza desberdinak* ekuazioan). Zer dakigu horien gainean irakasleok? Nola txertatzen ahal ditugu gure jardunean?

Ongi ezaguna da ikaskuntzaren kasu berezi askok (arretaren faltak, hiperaltibitateak, gaitasun handiak, hezkuntza premia bereziek...) berariazko ezagutzak eskatzen dituztela egoera horietakoren batean diren ikasleekin lan egiten duten irakasleentzat.

Aipatu nahiko genukeen gure garaiko beste lan arlo bat, bere gaurkotasunagatik, ikaskuntza emozioekin lotzen duena da. Badakigu jakin lotura sakon eta zaharra dagoela, nahiz eta gaur egun ulertzen hasi besterik hasi ez garen, emozio egoera desberdinen, oroitzapenen eta ikaskuntzaren artean.

Horregatik, ikasteko motibazioa sustatzerakoan kontuan hartu behar dira emozioen eta sentimenduen garrantzia, edo arrazoiaren eta emozioaren arteko harreman zailak, bereziki heziketa etapetan (haurtzaroan) edo independentzia etapetan (nerabezaroan). Gazteekin lan egiten dutenek ongi asko dakite etorkizuneko sari baten promesa ia inoiz ez dela akuilu nahikoa izaten. Gatazkan emozio indartsua eta hurbileko estimulua arrazoibideari eta aurreikuspenari gailendu ohi zaizkie. Nola jokatu pertsona desberdinen arteko bizikidetza horrekin, nahi kontrajarrien artean, betebeharren eta emozioen artean, errealitatearen eta gogoaren artean?

Eta aipatutako bi arlo horiek (neurozientzia eta **adimen emozionala**) beza-

laxe, beste asko ere landu behar ditu etengabeko prestakuntzak (lidergoa, *coaching*-a, lan kooperatiboa, lankidetzak sareak, kalitatearen kudeaketa, sare sozialak...).

IRAKASLEAK, ZUZENAK⁽⁷⁾

Argi da edozein ogibidek, eta hizpide dugunak ezin du salbuespena izan, bere jarduna zuzentzeko **kode deontologiko** bati jarraitu behar diola. Esan dugu kalitateko hasierako prestakuntza eta etengabeko prestakuntza funtsezko betekizunak direla lanbiderako. Gogora dezagun kode horrek jaso beharko lituzkeen alderdi batzuk: ikasleekiko begirunea, familiekiko begirunea, erakundearekiko berarekiko begirunea, lankideekiko begirunea, gizartearekiko begirunea, lanbidearekiko begirunea, alegia, norberarekiko eta besteekiko begirunea. Gizarteak hezkuntzari balioa eman beharko lioke norbanakoen eta gizartearen aurrerapeneko elementu gisa, irakasleen eta hezkuntza erkidegoaren eskubideak errespetatuz.

⁽⁷⁾Itzultzailearen oharra: "Docente, decente" jatorrizkoan



Etikaz gain, irakasleak bere gain hartu behar du bere gaitasun profesionalaren gaineko erantzukizuna. Betebehar horien artean dago ezagutza zientifiko, teknologiko eta pedagogikoak eguneratzea eta ikerketaren eta berrikuntzaren ildotik bere irakaslana hobetzea.

IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA NAFARROAN

Esparru honetan aritzen da Hezkuntza Departamentuko Prestakuntzaren eta Kalitatearen Atala. Irakasleen etengabe-ko prestakuntzak irakasle guztiek lanean behar bezala jarduteko behar dituzten gaitasun profesionalen garapena bultzatu behar du.

Ikastetxeetan prestakuntzaren esparruan **antzemandako beharrak** jaso eta gero, Prestakuntzaren eta Kalitatearen Atalak aztertu egiten ditu eta erantzuna ematen saiatzen da, bere esku diren giza baliabideen eta baliabide materialen arabera.

2013-2014 ikasturte honetan, Hezkuntza Departamentuaren Irakasleen Prestakuntza Planaren helburu nagusiak dira

Nafarroako hezkuntza sistemaren **kalitatea** bultzatzea, ikastetxeek eta irakasleek antzemandako beharrei erantzutea, eta irakaskuntzako gaitasunak hobetzea. Hori guztia ondoko **jarduera ildo** hauetan egituratzen da:

1. ildoak: Zuzendaritza taldeen lidergoa bultzatzea irakasleen prestakuntzari dagokionez.
2. ildoak: Ikastetxean ematen den prestakuntza instituzionala, hobekuntza planetan jasoa, indartzea.
3. ildoak: Estrategiak ezartzea irakasleen hausnarketa bateraturako eta lankidetzarako, eta jardunbide egokien trukea sustatuko duten ikastetxeen arteko prestakuntza sareak sortzeko.
4. ildoak: Ikasgelako prozesuak hobetzera bideraturiko prestakuntza sustatzea, irakasleek ikasleei ahalik eta prestakuntzarik handiena transmititzeko.
5. ildoak: Irakaskuntzako gaitasun profesionalen hobekuntza sustatzea.
6. ildoak: Irakaslanaren kalitatea hobetzeko prestakuntzaren aldiroko ebaluazio prozeduren ezarpena bultzatzea.

Prestakuntzaren lehentasunezko ildoak erdiesteko, administrazio unitate es-

kudunek honako **prestakuntza programen** diseinuan eta eskaintzan egiten dute lan:

1. programa. Bizikidetzak hobetzea, aukera berdintasunari, osasunaren sustapenari, jasangarritasunari eta beste balio sozial batzuei buruzko prestakuntza.
2. programa. Hezkuntza berrikuntzari eta oinarriko gaitasunak curriculumean txertatzeari buruzko prestakuntza.
3. programa. Kanpoko eta barneko ebaluazio ereduei buruzko prestakuntza.
4. programa. Atzerriko hizkuntzetako prestakuntza didaktikoa.
5. programa. Hezkuntzako teknologia berrietako (HIKT) prestakuntza.
6. programa. Ikastetxeen kalitatea kudeatzeko prestakuntza.
7. programa. Unibertsitatez kanpoko hezkuntza etapa guztietako irakasleen eguneratze humanistiko, zientifiko eta didaktikorako prestakuntza.

Prestakuntza jardueren eta programen birtutez irakasleen gaitasun profesionalen mapa osoa ezarri nahi da. Hasierakoa izaki, lan proposamena egiteko aurretik existitzen ziren eredu batzuk baliatu dira (Eurydice Sarearen txostenak, CNIIE-

ren proposamenak, Gaztela eta Leongo irakasleen gaitasun profesionalen ereduak, etab.).

Aurreko ereduak ordezkatzeko duen **proiektu pilotua** da hau. Lehengo eredu hartan prestakuntza jarduerak hezkuntza etapa desberdinen arabera taldekatzen ziren. Egungo ereduak, berriz, prestakuntza programak irakasleen zortzi gaitasun profesionalen arabera antolatzen ditu: gaitasun zientifikoa, pertsonala eta soziala, didaktikoa, antolaketakoa eta kalitatearen kudeaketakoa, bizikidetzaren kudeaketakoa, komunikaziorikoa, eta digitala. Zortzi gaitasun horiek azpiataletan banatuta daude eta hogeita hamahiru balizko jarduerak ildotan garatzen dira, irakasleei prestakuntza oso eta profesional baten bidez laguntzeko eta hobekuntza arloak detektatzeko.

Hori osatuz, Prestakuntzaren eta Kalitatearen Atala datu-base bat sortzen ari da beren borondatez prestakuntza jarduerak diseinatu, zuzendu edo horietan parte-hartzeko prest egonen liratekeen unibertsitatez kanpoko sare publikoko profesional guztiekin. Formulario soil baten bitartez, nahi duten irakasleak prestatzaileek adierazten dute zer arlo, gai edo irakasleen alderdi profesionaletan eskaintzen ahal dioten beren esperientzia irakasleen erkidegoari. Orain arte hirurehun profesionalak baino gehiagok eman dute izena.

2013-2014 ikasturtean ezarritako sistema honekin batera, jarraitzen da **ikas-tetxeetan prestakuntza** eskaintzeko printzipioa garatzen, baliabideak hobeki aprobetxatzeko eta irakasleekiko hurbile-na delako, eta **ikastetxeen prestakuntza** garatzen, helburu zehatz batekin, jasotako prestakuntzak benetako eragina izan dezan ikastetxeen hezkuntza proiektuan eta ikasleen ikaskuntzan.

2013-2014 PRESTAKUNTZA PLANA

Nafar irakasleriaren gaitasun-prestakuntza

1. Gaitasun zientifikoa

1. Curriculumeko arlo, irakasgai eta moduluetakoko eguneratzea.
2. Hezkuntza arloko ezagutza (pedagogia berriak).
3. Jakintza berriaren kudeaketa.

2. Gaitasun pertsonala eta soziala

4. Tutoretza
5. Laneko osasuna eta ongizatea
6. Ikasgelaz haragoko lana, hezkuntza tribuaren (familia, gizarte eragileak...) parte-hartzea.
7. Ekitatea
8. Balioak kudeatu eta sustatzea
9. Trebetasun pertsonalak, sozialak eta harremanetakoak
10. Orientatzea eta motibatzea

3. Gaitasun didaktikoa

11. Aniztasunari erantzuna
12. Oinarrizko gaitasunak eta ebaluazioa
13. Arlo, gai eta moduluetakoko berariazko didaktikak
14. Ikasgela kudeatzea (ikaskuntza espazioak)
15. Metodologia eta programazioa

4. Antolaketaren eta ikastetxean kalitatea kudeatzeko sistemen gaitasuna

16. Araudia eta dokumentazioa
17. Antolaketa, plangintza, koordinazioa (hezkuntzako rolak)
18. Kalitatea kudeatzeko sistemak

5. Bizikidetzaren kudeatzeko gaitasuna

19. Hezkuntza emozionala, hezkuntza arduratsua
20. Bizikidetzaren hezteak
21. Berdintasuna
22. Bitartekotza, gatazka konpontzea

6. Berrikuntza eta hobekuntza gaitasuna

23. Hobekuntza planak: diseinatzea, gauzatzea eta ebaluatzea

7. Komunikazio gaitasuna

24. Komunikazio trebetasunak 1. hizkuntzan
25. Hizkuntza eta komunikazio trebetasunak 2. hizkuntzan
26. Adierazpena eta komunikazioa

8. Gaitasun digitala (IKTak curriculumean txertatzea)

27. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ezagutzea
28. Lanbideko eta kudeaketako garapena
29. Intimitate birtual berria: alderdi etiko eta legalak
30. Erabilera didaktikoak

AZKENIK

Irakasleek, beren gaikuntza profesionalaren bitartez, ikasleen prestakuntza eta heltze prozesua errazten ahal dute, curriculumean (ezagunean zein ezkutuan) lagundu eta ikasle bakoitzaren instrukzio formal, ez formal eta informalean ere lagundu.

Artikuluaren ideia hau azpimarratu nahi nuke: prestatzen jarraitzen duten irakasleek hobeki laguntzen diete ikasleei eta gizarteari zor dioten zer-bitzua ematen dute.

**Isabel Górriz Noáin,
Javier Izcue Argandoña.**



PRESTAKUNTZA ES- PERIENTZIA BAT: HEZKUNTZA EMOZIONALERAKO COACHINGA

José Azpirotz Zilbeti
Javier Izcue Argandoña

Prestakuntzaren
eta Kalitatearen Atala

Behar bat hautematea

Gure garaia emozionalki adimentsuak diren eskolak eskatzen ditu, baita ikasleekiko harremanean gaituak dauden eta estrategia emozional asko dituzten irakasleak ere. Horrexegatik ez da harritzekoa iazko ikasturtearen bukaeran Nafarroako hirurogeita hamahiru ikastetxek adieraztea adimen emozionaleko


prestakuntza izan nahi zutela. Beharren hautematean eskaturiko laugarren gaildoa izan zen, oinarritzko gaitasunen ikaskuntzaren, proiektuko lanen eta ikastetxeko webaren ondoren.

Irakasleen lanbide gaitasunak

2013-2014 Prestakuntza planak eskari horiei erantzuten ahalegindu da. Horretarako,

eskaintzak irakasleen lanbide gaitasunak antolaketa ardatz modura hartzen ditu, hala nola, gaitasun zientifikoa, pertsonala eta soziala, didaktikoa, antolaketakoa eta kalitatea kudeatzeko sistemena, berrikuntza eta hobekuntzakoa, komunikatiboa, digitala. Gaitasunetako bat, **bizikidetza kudeatzeko gaitasuna** deiturikoa, lau gunen hauetan egituratzen da: bizikidetza, berdintasuna, gatazken bitartekaritzeta eta

20 aldiz edo gehiagotan aukeratuak



- [Lana oinarritzko gaitasunen arabera egitea]
- [Proiektuko lan egitea]
- [Ikastetxearendako weba (blogak, sites, Moodle...)]
- [Adimen emozionala]
- [Google tresnak]
- [Ikaskuntza zailtasun berariazkoak dituzten ikasleekiko arreta]
- [Disrupzioa ikasgelan]
- [Gatazkak ebatzi]
- [Hezkuntza baliabideak: Bilatzea eta baliatzea]
- [Estresa kudeatzea]
- [ADE]

- [Ikasgelan-ikastetxean inklusibitatea laguntzeko estrategiak]
- [Familiaren eta eskolaren arteko harremana]
- [Lehen sorospenak]
- [Multimedia tresnak, oro har]
- [Lan kooperatiboa]
- [Berrikuntza proiektua]
- [Formación CLIL // CLIL formakuntza]
- [Hizkuntzen tratamendu integratua]
- [Ikastetxeko hobekuntza plana (ebaluazioan oinarritua)]
- [Dispositibo mugikorrak: tabletak, eBook-ak]



Garapenerako Hezkuntzako prestakuntza jarduera (Elkartasunaren Aldeko Eskolen Sarea)

ebazpena, eta adimen emozionala. Beharrak aztertu ondoren, Prestakuntzaren eta Kalitatearen Atalak garrantzitsutzat jo zuen adimen emozionalaren gaineko prestakuntza proposamenak diseinatzea. Hezkuntza praxiak irakasleei gaitasunak eskatzen dizkie ikasleekiko harreman emozionalean eta lanari lotutako bizipenen kudeaketan. Aldi berean, ikastetxeko proiektuak eskola erkidegorako parte-hartze foroak sustatuko dituen ikuspegi estrategikoa eskatzen die zuzendaritza taldeei. Kalitatezko hezkuntzak irakasleen ongizatea bermatzea eskatzen du. Horri guztiari gehitu behar zaio *Laneko arriskuei aurrea hartzeko legeak* langileen osasuna eta ongizatea

zaintzera behartzen duela.

Nola ez! Azken urteotan adimen emozionalari buruzko prestakuntza proposamen asko eta asko eskaini dira eta gaur egun ere eskaintzen ari gara. Hemen aipa daitezkeen jardueren bitartez erakutsi dira irakaslanaren eragin emozionala murrizteko eta ikaslearekiko harreman emozionala hobetzearen bidezko ikaskuntza prozesuak errazteko estrategiak; hala nola, *Adimen emozionalari eta estresaren kontrolari buruzko ikastaroan* garapen teorikoa yogaren praktikarekin bateratu dira, yoga erlaxatzeko tresna modura hartuta.

Jarduera batzuk modu pilotuan diseinatu aberastea erabaki da. Jarduera horiek harremanen dimentsioan jarduteko tresnak ematen dituzte eta batzuk irakasle guztiendako prestatu dira eta beste batzuk, ordea, berariazkoagoak direnak, zuzendaritza taldeak dituzte helburu. Hartara, testuinguru honen barnean *coachinga* tresna baliagarria izan daiteke hezkuntza erkidegoko irakasleendako, ikasleendako, orientatzaileendako, tutoreendako, familiendako...

Coachinga? Zer da?

Coaching terminoa kirol jatorriko angлизismoa da. Ingelesezko **to coach** 'entre-



Zuzendaritza taldeentzako coaching saioa.

natu' aditzetik dator eta orientabiderako eta laguntzarako metodologia erakusten du, garapen pertsonalerako eta xedeak lortzeko berariazko helburu eta trebetasunak lortzera bideratuta. *Coaching*ak gune bat ematen du norberaren rol pertsonal eta profesionala zein den behatzeko, hartan pentsatzeko eta sakontzeko eta, orobat, prozesu eta harreman emozionalei arreta berezia egiten die.

Antsietatearen erabilera eta helburuen lorpena ezinbestekoak diren kirolaren munduan sortu bada ere, laster hedatu da kirol profesionalaren antzekoa den enpresa esparrura. Berehala orokortu zen haren erabilera erabakiak hartzeko kudeaketara. Eta azken urteotan *coaching*a zenbait lanbide eremutan espezializatu da, hala nola, hezkuntzan.

Proposamena: hezkuntzako coachinga

Hezkuntza Departamentua etengabeko prestakuntzaren plangintzaren eta garapenaren arduraduna da. Prestakuntzaren eta Kalitatearen Atalaren, Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Atalaren eta Bizikidetzarako aholkularitzaren bitartez, hasierako bi prestakuntza jarduera abian jarri zituen 2012-2013 ikasturtean. Hala xe deitzen ziren: "*Coaching*-a eta gainbegirapena irakasleen ongizaterako" eta "Irakaslanaren harreman-dimentsioaren garapena". Biek ala biek ikastetxeen eta irakasleen aldetiko onarpen zabala izan zuten. Horren ondorioz, berriro eskaini dira 2013-2014 ikasturtean.

Aurtengo ikasturterako, Prestakuntzaren eta Kalitatearen Atalak *coaching*aren

inguruko bi prestakuntza jarduera berri diseinatu ditu, irakasleen eta ikasleen arteko ulermena eta irakasleen arteko harremanak hobetzeko tresna modura hartuta *coaching*a.

Lehena "Irakasleen ongizaterako *coaching*-a" da. Prestakuntzarako eta konfidentzaltasunez hausnartzeko gunea eskaintzen die irakasleei. Hezkuntza lanari laguntzeko gune horretan, irakaslanari eta taldeko lanari loturiko egoerak eta hezkuntzan sortzen diren prozesu emozionalak aztertuko dira, haien eragina apaldu eta aldatzeko oreka pertsonalari eta jardun profesionalari eragin gabe.

Ikastaroko edukiek, besteak beste, arlo hauek lantzen dituzte: pertsonen arteko harremanen ikuspegi sistemikoa, gai-



tasun emozionalak, euste emozionala, komunikazio teknikak, beldur, tentsio eta estres egoerak eta aldaketaren prozesu emozionalak. Metodologia teoriko-praktiko batekin, ikastaroa bost saiotan egin da eta Blas Campos pedagogoak eman du. 10 ikastetxek eta 120 irakaslek baino gehiagok hartu dute parte.

Proiektu pilotu izateko bokazio agerikoarekin, bigarren proposamena 2013ko urrian hasi da eta 2014ko udaberrira arte iraunen du. “Coaching exekutiboa ikastetxeetako zuzendarientzako” du izenburua. Ikastaroaren helburua estrategiak sortzea da, zuzendaritza taldeek antolaketa eraldatzeko lidergo rola bete ahal dezaten, talde eta lantaldeak dinamizatuz: eskola

kontseilua, zikloko taldeak, departamentuak, klaustroa. Saio presentzialak oso dinamikoak dira eta haietan esperientziak aztertzen dira. Hartara, ikastaroan gune tematiko hauek garatuko dira: erakunde akademikoa, haren dimentsio estruktural, emozional eta tenporalean; boterearen eta autoritatearen arteko harremana; kudeaketa mailak; lidergoaren rola eta talde harremanak aldaketarako lidergoak duen garrantziaren inguruan.

Parte hartu duten ikastetxeak ondokoak dira: “Mendialdea I” HLHIP (Berriozar); “Remontival” HLHIP (Lizarra); “San Pedro” HLHIP (Mutiloa); “Basoko” BHI (Iruña); “Pedro de Ursúa” BHI (Iruña); “Sancho III el Mayor” BHI (Tafalla) eta “Sarriguren” HLHIP (Sarriguren).

Ikastaroa bukatutakoan, emaitzak ebaluatuko dira eta horri esker jakin ahal izanen da proposamena baliagarria izan den eta etorkizunean eskaintzen jarraituko den bizikidetzaren eta adimen emozionalaren kudeaketarekin zerikusia duten irakasleen lanbide gaitasunak hobetzeko.

**José Azpirotz Zilbeti,
Javier Izcue Argandoña.**



IKASGELA, TUTORETZA ETA SUSTATU BEHARKO LIRATEKEEN GAITASUNAK

Juan Carlos Ciria

Tuterako ETI IIPko zuzendaria

Joan den udaberrian, maiatzaren bukaran, Nafarroako Eskola Kontseiluaren XIV. jardunaldiko eztabaida mahaian parte hartzeko aukera izan nuen, beste lan-kide batzuekin batera. “Eskolak behar dituen irakasleak” zen jardunaldi horren izenburua eta oso esperientzia pertsonal interesgarria izan zen; arrazoiak, besteak beste:

- a) gaiaren prestaketa, nekeza, hamar minutuko hitzaldia besterik ez egiteko,
- b) jardunaldia bera, larunbat euritsu bateko goiz osoan zehar, Iruñean tradiziozkoenetakoa den institutu batean, Plaza de la Cruz BHIIn, eta
- c) ikasle gutxi batzuek, irakasle talde batek, hizlariak eta, oro har, geratzen zen publikoak eskaini zidaten arretagatik jasotako sentsazioak. Arratsaldeko ordu biak eta laurden baino beranduago ziren eta oraindik bertan zeuden entzule bakanek lerro hauen bitartez nabarmendu, azpimarratu eta eskertu nahi ditudan errespetu bikaina eta arreta eskaini zizkiguten.

Gaia, “Eskolak behar dituen irakasleak”, oso interesgarria zen, eta nahi dugun

eta behar dugun eskolaren azterketaren barnean koka daiteke. Tamalgarria da hain foro gutxi egotea hezkuntzako gaiak aztertzeko, gai horiek interesgarriak baitzaizkigu herritar zein hezkuntzako profesional gisa.

Bizitzan zehar eta lantzen ari garen etengabeko prestakuntzan zerbait ikasi badugu planifikatzea da eta, horren barnean, egiten ari garena aztertzea emaitza objektiboak lortzeko eta hobekuntza arloak zehaztu ahal izateko, arlo horiek sisteman sartuz, ondoren berriz ere azterketa egiteko. Aipatu nahi ditut etengabeko hobekuntzarako PDCA zikloa (planifikatu, egin, txekatu/neurtu eta aztertu/jardun) edo EFQM ereduko (Kalitatea Kudeatzeko Europako Fundazioa) RE-DER matrizea (emaitzak, ikuspegiak planifikatzea, ikuspegiak ezartzea, ebaluatzea eta berrikustea). Tresna horiek ikastetxeen kudeaketa eta ikastetxeen barneko irakaskuntza-ikas-kuntza prozesua errazten dizkigute, modu sistematikoan. Garrantzitsuena irakaskuntza-ikas-kuntza prozesua da, duen zentzu eta edukiagatik.

Eta nik zera galdetzen diot nire buruari: hezkuntzari buruzko legeak adostasunik gabe aldatu baino lehen, ez litzateke hobe izan Hezkuntza Ministerioko eta estatu mailako kontseilaritzetako buru pribilegiatuak lehenengo gure hezkuntza sistema aztertu, indarguneak eta hobekuntza arloak lortu eta hobekuntza planak abian jarriko balituzte?

Erantzunaren zain nagoen bitartean, irakasle eta zuzendari naizen aldetik oinarrizkoagotzat eta garrantzitsuagotzat ditudan gaiei buruzko artikulu zentzudun bat idazten saiatuko naiz, Nafarroako Eskola Kontseiluko aldizkarirako. Hiru dira sakontzen saiatu naizen arloak: **ikasgela, tutoretza** eta sustatu beharko liratekeen gaitasunak.

IKASGELA

Ikasgela ikastetxeko “**zelularen nukleoa**” izan behar da. Ikastetxe bateko funtsezko ekintza bikoitza garatu behar da bertan: irakaskuntza irakasleen aldetik eta ikaskuntza ikasleen aldetik. Antolaketak planifikatzen dituen ekintza guztiak

ikasgelara zuzendu behar dira, funtsezko ekintza, hots, irakaskuntza-ikaskuntza, hobetzeko asmoarekin.


Irakaslearen helburua da ikasleek prestakuntza akademiko, intelektual eta pertsonal hoberena jaso dezaten. Horretarako, ezinbestekoa, beharrezkoa eta funtsezkoa da pertsona bakoitzak (ikasleak) **ikasteko duen borondatea**, irakasleak ikaskuntza hori lortzeko diseinatutako arau didaktikoak onartuz. Baina batzuetan, hainbat arrazoiengatik, gaia interesatzen ez zaion eta ikasi nahi ez duen ikasleren bat aurki dezakegu ikasgeletan. Horrelako kasuetan, ikasle horren egoera pertsonala birbideratzeko baliabideak jarri behar dira berehala, kalte handiagoak saihesteko eta eskolak egoki gara daitezen ahalbidetzeko.

Irakasleak ahal duen material didaktiko guztiarekin **diseinatzen ditu ikaskuntza jarduerak**. Material hori teorikoa zein laborategiko edo lantegiko material praktikoa izan daiteke. Lortu beharreko helburua da ikasleak gaitzea egiten ari diren ikasketen edo tituluaren curriculumak zehaztutako berariazko arlo jakin batzuetan. Gero eta beharrezkoagoak dira ikasleek modu esperimentalean ikaskuntzako praktika errealak garatzea ahalbidetuko duten material didaktikoak. Horrek esan nahi du sakontze maila altuagoa eta kalitate handiagokoa dela baina aurrekontu handiagoa behar dugula material didaktikorako.

Irakaskuntzaren plangintza irakasle guztiek ikasturte hasieran departamentuaren barnean prestatzen duten programazio didaktikoan gauzatzen da eta eskolak egunez egun antolatzeko gida da. Aplikatu beharreko metodologia eta ebaluazioari buruzko kapitulu osoa (tresnak eta prozedurak, kalifikazio irizpideak, errekupeazioa) oso garrantzi-tsua dira ikuspegi estrategiko batetik ikasle bakoitzaren errendimendurik handiena lortzeko.

Horretarako jardunbide egokia da **irakasle taldearekin** ahal den guztia adostea. Ez dugu ahaztu behar irakasle talde oso





batek zuzentzen duela ikasle beraren ikaskuntza eta hainbat arlo, ikasgai, irakasgai edo lanbide modulutatik eragiten diotela.

Ikasgelan gatazkak prebenitzeko funtsezko beste alderdi bat da **ikasleei ikasturte hasieratik informazioa** ematea arauen eta ikasketetan eta lortuko dituen emaitzetan eragina izanen duen edozein alderiaren gainean: materialak, bibliografia, baliabide didaktikoak, bertaratzeak, jarrerak, ikasgelan eta etxean ikastea, lanak, egin beharreko atazak, entregatzeko epeak, kalifikazio partziala eta azken kalifikazioa. Programazioaren laburpena ikasleei eman eta azalduko zaie ikasturteko lehen asteetan.

Irakasleen prestakuntza eta gaurkotze pedagogikoa gero eta garrantzitsuagoak dira gure lana ahalik eta eraginkorrena izan dadin lortzeko. Lan horren barnean sartzen da ikaskuntza jarduerak diseinatzea, hautatzea eta ikasleekin gauzatzea eta, orobat, lortzea ikasleek ikasgelan arreta jartzea, ariketak eta jarduerak egitea, egunero ikasi eta lan egitea eta emaitzak hobetzea. Irakasle bezala ez

dugu ahaztu behar ikasleek ekintzak lehen pertsonan egiten badituzte, aktiboki inplikatzeko badira, esperimentatzen badute eta plus bat emanez parte hartzen badute, beren ikaskuntzaren emaitza hobea izanen dela. Hori guztia Edgar Daleren **ikaskuntzaren konoan** oinarrituta dago eta, era berean, Hermann Ebbinghausek egindako eta **oroiteza-ren kurban** deskribatutako memoriari buruzko ikerketan. Ikerketa horrek denboran zehar ikasitakoa eta ahaztutakoa lotzen ditu, garrantzitsua izanik ikasleak zer nolako interesarekin ikasi duen, eta gomendatzen du azterketak planifikatzeko ikasgaiak errepasatzea.

TUTORETZA


Tutoretza ikasleari (norbanako gisa) eta haren familiari zuzentzen da batez ere eta, orobat, taldeari edo atalari eta irakasle taldeari. Lan handia eskatzen die **irakasle-tutoreei**, eta ikastetxeetako ikasketak buruak eta orientazio departamentuak oso kontuan hartu behar duten zerbait da ikasturtea planifikatzean. Horrela, tutoretza plana garatzen da zuzentzen den hezkuntza mailaren, maila horren eza-

garrien, adinen eta lortu nahi diren helburuen arabera. Oro har, bai ikasleek bai familiek oso onuragarritzat jotzen dute, baita derrigorrezkoaren ondoko mailatan, adin nagusiko ikasleekin.

Tutorea ikasleen eskura jartzen da koordinazio, orientazio, elkarlan eta laguntza eginkizunetarako, ikasketen esparruan zein esparru pertsonal eta familiarrean. Irakasle taldearekin batera, emaitza akademikoak aztertzen ditu, hobekuntzak proposatzen ditu eta ebaluatzen ditu. Taldearen bitartekaria eta ordezkaria da irakasle taldearen eta ikasketak buruaren aurrean.

Komeni da irakasle **orok bere irakasgaiko tutoretzat** hartzea bere burua, axola zaizkiolako ikasleak eta beren portaera, irakasgaiarekiko duten jarrera, egunero eskolan zein etxean egiten duten lana eta lortzen duten errendimendu akademikoa, eta bere klasearen garapena hobekien ezagutzen duen pertsona delako.

Tutorearen berariazko jarduerak dira: ikasteko teknikak, ikasgelan gatazkak



ebaztea, bertaratze hutsegiteak eta justifikazioak kontrolatzea, ikasleekin elkarrietzeta pertsonalak egitea, irakasle taldearekin koordinatzea hiru hilean behin egin beharreko memoriak eta ebaluazio aktak, jarduera osagarriak eta bidaia kulturalak, goi ikasketen balizko irteerei buruz informatzea, eta Europar Batasuneko herrialde batean ikasteko edo praktikak egiteko bekak ematen dituzten mugikortasun programei buruz informatzea (hala nola, Erasmus edo Leonardo da Vinci programak).

IKASGELAN SUSTATU BEHARKO LIRATEKEEN GAITASUNAK

Ondokoak dira irakasleek ikasgelan sustatu beharko litzuzketen **gaitasunak**, ikasleen prestakuntza ezin hobea izan dadin:

- Eskolak ezin hobeto prestatzea, une oro argi izanda ikasleen eginkizunak eta ekintza, atazak eta ardurak eta, orobat, irakaslearenak.
- Puntualtasuna, eskolak hasteko eta ikasgelatik ateratzeko.
- Ikasgelako gatazkak prebenitu eta ebaztea.
- Pribatuan ebaztea ikasle batenak baka-

rrik diren gai oso pertsonalak.

- Ikasgelatik botatzea azken baliabidea da, salbuespeneko kasuetan bakarrik erabili behar den zerbait.
- Ikasle guztiek parte har dezaten sustatzea.
- Elkarrekiko errespetua maila pertsonal zein akademikoan, diziplinatuak izanik.
- Komunikazio erraza, ikasleen eskakizun guztiei erantzunez eta une egokian hitza emanez.
- Beharrezko prestakuntza didaktikaren eta ematen den berariazko ikasgaiaren esparruan.
- Ikasleen artean arrazoibidea, memoria eta kritika eraikitzailea sustatzea. Eredua ematea eguneroko ekintzekin.
- Askotariko egoeren aurrean ikasleen arrakasta aitortzeak balio positiboak indartzen ditu.
- Proba objektiboak egitea. Kalifikatzeko prozedurak eta tresnak argiak izan behar dira eta aldez aurretik ezagutu behar dira.
- Eskola ordua garrantzitsuena da eta errespetatu behar da.
- Ikaslea banakako ikaskuntzaren protagonista izatea lortuko duen metodologia aktiboa erabiltzea, informazioaren eta

komunikazioaren teknologiak aplikatuz.

- Talde lana sustatzea. Gaitasun hori oso beharrezkoa da eta enpresek eskatzen dute.
- Irakasleen eta ikastetxeen arteko jardunbide egokiak. Gauza bera taldeko ikasleen artean.
- Lanarekiko konpromisoa eta inplikazioa ikastetxeko antolaketa maila guztietan.
- Bokazioa, lanbide soil bat baino gehiago.
- Ingurumenarekiko errespetua, aztura osasuntsuak, eredu izatea.
- Berrikuntza, sormena, ekimena sustatzea.

Ona litzateke gizarte mailan aitortuak izatea ikasgelan lantzen eta sustatzen diren gaitasun horiek zein abian jartzen dituzten irakasleak, etorkizuneko profesionalak izanen diren gaurko pertsonetan inbertitzeko balio positiboak baitira.

Juan Carlos Ciria,
Tuterako ETI IIPko zuzendaria.



IRAKASLEEI IKTETAN PRESTAKUNTZA EMATEA TPCK EREDUTIK ABIATURIK

Ángel Sobrino irakasle dk.

Nafarroako Unibertsitatea

Hugo Tapia irakasle dk.

Universidad Católica del Norte

“Irakaskuntzan edozein laguntza mekaniko erabiltzeari dagokionez, behar bada arazorik konplexuena da laguntzaren erabilera irakaskuntza metodoarekin eta ikasketa planarekin batera txertatzea

*Devereux (1933), The educational talking picture-n;
Punyak eta beste batzuek aipatua (2009).*

IKTak curriculumean txertatzeko irakasleen hasierako prestakuntzarako esparru bat aurkeztuko dugu hurrengo orrialdeetan. Eredua azaldu ondoren, proposamen globalak eta bi ekarpen zehatzago eztabaidatuko dira.

1. IRAKASLEAK ZER DAKIEN: EDUKIAK ETA DIDAKTIKA

Erikek hamar urte baino gehiago darama matematika irakasten DBHn eta Batxilergoan eta, azkenean, bere burua irakasle ontako dauka... Bere lanbidea “menderatzen” duela uste du: fisikako lizentziaduna denez jadanik kontrolpean zuen edukia eta, hamar urteren ondoren, esperientziari esker irakaskuntza estrategien, irakaskuntza tekniken, ebaluazio ildoen... bilduma zabala erdietsi du eta, eskuarki, ezagutza metodologikoa.

Baina IKTak irakaskuntzan sartzean (bere ikastetxean 20 tableta daude, Bigarren Hezkuntzako zuzendariak erabiltzera “behartu” nahi dituenak), pixkana-pixkanaka urtzen ari da egoeraren “jabe” den bere uste hori... Are gehiago, konturatzen hasi da bere irakasteko modua ez dela uste zuen bezain ona. Zer app erabili behar den erabakitzeak edo azterketetan tabletak erabili behar diren erabakitze soilak buruhaustea sortu dizkio eta, ondorioz, konturatu da irakasle modura matema-

tikako oinarri sendoak eta eduki pedagogiko onargarriak dituela, baina baita hutsuneak ere: ez du argi bere ikasleek nola ikasten duten eta ez jakin osoa da IKTekin ikasteko moduez.

Egoera hau guk uste baino hedatuagoa da (Hoban, 2002). Eriken eta bere irakasle lankide askoren uste sinplistegiek parez pare jotzen dute irakaskuntzaren, ikaskuntzaren eta IKTen arteko harreman konplexuen inguruan sortzen ari diren ikusmolde berriekin. Kasu prototipiko honen “osagaien” azterketak irakasle modura zer dakigun hobeki ulertzen lagun gaitzake.


Lehenik, –eta, seguruenerik, muga argienak dituen kontua da– Erikek jadanik bazuen jakintza bat –matematika–, guk *edukiaren gaitasuna* deituko duguna eta urteak joan urteak etorri bigarren bat eskuraturik zeukan, prozedimentalagoa, hots, *gaitasun didaktikoa*. Hirugarren gaitasun bat –*gaitasun teknologikoa*– eskatzen denean eraikina arrailtzen hasten da. Goazen bada zatiz zati...

Jakintzat emanen dugu eta ez dugu zertan zalantzan jarri gure irakaslea gai zela edukian eta didaktikan. Zer falta zitzaion? Zergatik desegonkortzen da horrenbeste egoera osagai instrumental bat agertzean? Kableak, sistema eragileak, wifi-ak eta app-ak arazo al dira? Ez du ematen

Mishra-k eta Koehler-ek bezala (2006), irakasleen IKTetako prestakuntza oinarritu eta gidatuko duen orientabide didaktikoa behar dela, Shulmanen aurreko kategorietatik abiatuak (ikus Angeli eta Valanides, 2009).

Arlo honetako proposamen interesgarrie-

Hiru osagai horiek eta haien arteko elkar-
rerraginek zazpi *constructoren* sorrera
dakarte –horietatik hiru jadanik ezagu-
tzen ditugu–: edukiaren ezaguera (CK edo
EE, euskaraz), ezaguera pedagogikoa (PK
edo EP, euskaraz), ezaguera teknologikoa
(TK edo ET, euskaraz), edukiaren ezague-
ra pedagogikoa (PCK edo EEP, euskaraz),
edukiaren ezaguera teknologikoa (TCK edo
EET, euskaraz), ezaguera teknologiko peda-
gogikoa (TPK edo ETP, euskaraz) eta edu-
kiaren ezaguera teknologiko pedagogikoa
(TPACK edo EETP, euskaraz). Jarraian azal-
duko dugu *constructo* horietako bakoitza
(Tapia, 2012).





Edukiaren ezaguera: irakasleak bere prestakuntzan jorratutako irakasgaiaren gainean duen ezaguera da, hau da, *irakastendena* ezagutzea. Garrantzitsua da irakasgai bakoitza eraikitze, antolatze eta emateko modua desberdina delako.

Ezaguera pedagogikoa (edo didaktikoa): irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren gaineko ezaguera da: metodologia didaktikoa, ebaluazioa, plangintza, teoria pedagogikoak, azken finean, *nola irakasten den* jakitea.

Ezaguera teknologikoa: atal honetako jakintzak ezartzea ez da erraza, IKTen izaera aldakorra baita. Teknologien erabileraren gaineko ezaguera orokorra da eta ez hainbeste zenbait tresnaren berariazko ezaguera, nahiz eta hori ere barne hartzen duen. Horrek berarekin dakar irakasleak trebe izan behar duela teknologia berriak ikasteko eta haietara egokitzeko. Esan *daitete zerekin irakatsi* jakiteaz ari garela.

Edukiaren ezaguera pedagogikoa: berariazko irakasgai bat nola irakatsi behar den adierazten digun ezaguera da. Horrek berarekin dakar jakitea ikasleak nola ikasten duen irakasgai jakin bat eta horri lotutako alderdi metodologiko guztiak (irakasteko eta ebaluatze estrategiak, adibidez). *Irakatsiko duguna nola irakatsi* jakitea da.

Ezaguera teknologiko pedagogikoa: teknologiak irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan nola eragiten duen ulertzea da: onurak eta mehatxuak, IKTak ezartzeko estrategiak eta teknologien erabilera berriak diseinatzeko gaitasuna. *Irakatsiko dugun modurako zer teknologia erabili* jakitea da.

Edukiaren ezaguera teknologikoa: teknologiak irakasgaietan nola eragiten duen, eta alderantziz, jakitea da. Era berean, teknologiaren presentzia dela-eta berriazko ezaguerak nola aldatzen diren jakitea da.

Edukiaren ezaguera teknologiko pedagogikoa: ezaguera hau osagai desberdinen gurutzaketa baino konplexuagoa da. Teknologiak erabiliz irakaskuntza on bat egiteko egitura nagusia da eta horrek eskatzen du:

1. teknologiaren erabilerarekin lotutako kontzeptuak ulertu eta komunikatzea;
2. teknologien bidez kontzeptuen irudikapena ulertzea;
3. ikasleen beharren arabera irakasteko IKTak egoki ezartzeko teknika pedagogikoak;
4. teknologiek kontzeptuen ulermenean nola laguntzen duten jakitea;
5. ikasleak kontzeptuez aldeztu aurretik

duen ulerkera ezagutzea, eta teknologiek jakintza berriak eskuratzen edo jadanik daudenak indartzen nola lagun dezaketen azaltzea.

3. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZAN DITUEN ONDORIOAK

Zoritxarrez, IKTetako hasierako prestakuntza lantzeko modua eredu sistemiko honetatik oso urrun dago (Maisu-maistren gradua Haur eta Lehen Hezkuntzan, eta Bigarren Hezkuntzako irakasleendako prestakuntza masterra). Batzuetan kontrako aldean ere badago... IKTen gaineko irakasgai bat edo beharbada bat baino gehiago eta, bereizita, prestakuntza didaktikoa eta edukien gainekoa (maisu-maistren prestakuntzaren esparruan, ikus Losada, Valverde & Correa, 2012). Ikusmolde hori antzua da irakasleen hasierako prestakuntzan, edukiaren ezaguera pedagogiko eta teknologikoari dagokionez (Chang eta beste batzuk, 2012): ez da gai irakasleen IKTetako ezaguera eta trebetasunak irakaskuntzarekin "fusionatzeko". Testuinguru adierazgarri bat emanen dien beste esparru bat behar da, IKTak beren irakasgaiko edukien irakaskuntzan pedagogikoki txertatu ahal izateko.

Valverde, Garrido eta Fernández Sánchez (2012) esanetan, prestakuntza honen



beharrek eskatzen dituzten jakintzak curriculumeko eduki batean aditua den batek (irakasgai baten irakaskuntzan esperientzia duen irakasleak), IKTetako aditu batek (informatika ingeniariak) edo pedagogo aditu batek (hezkuntzako teknologoak) bakarka dituzten jakintzetatik askoz ere harago doaz eta, horrenbestez, IKTak xertatzeko irakasleendako prestakuntzak eskatzen du gaur egungo ikusmoldeak eta praktikak birplanteatzea, gaitze tekniko-informatikora gehiegi bideraturik daudelako, berariazko curriculum-edukiekin eta horiek aplikatzen diren testuinguruekin zerikusirik izan gabe.” (226. or.)

Integrazio esparru honetan, elkarreragin bakoitza ezinbestekoa da irakaslearen prestakuntzan eta, edukiak irakasteko IKTetan oinarritzen diren estrategia didaktikoak ezagutzeaz gainera, jakin behar dute ikasleek irakasgai jakin bat ikasteko zer zailtasun duten, zailtasun horietan nola lagun dezaketen teknologiek eta ikasleek aldeztetik zer dakiten, eta “ikasteko logika” oinarri hartzen duten teoriak ezagutu behar dituzte” (ik. Tapia, 2012).

Jakina, badira beste aldagai batzuk. An-

geli-ren eta Valadines-en arabera (2009, Valverde, Garrido eta Fernández Sánchezek 2010ean aipatuak), irakasleen prestakuntzari aplikatzen zaionean TPCK ereduak irakaslearen sinesmen, esperientzia praktikoa eta bizipen guztiak kontuan hartu behar ditu. Eta, gainera, edozein ikusmoldek ez lituzke soilik irakaslearen sinesmen eta esperientzia emozional hauek kontuan hartu behar, ikasleak ere kontuan hartu beharko lituzke. PCK TPCKren oinarri kontzeptuala denez gero, TPCKren osagai giltzarriak lirakeke irakasleak bere irakasgaiaren irudikapenez duen ezagutza eta ikasleen kontzeptzioez eta edukiarekin zerikusia duten zailtasunez dituen ulerkerak.

Alderantzizko diseinu-prozesu batean, kalitatezko proposamen irakasgarrien ezaugarriak ondorioztatu ditzakegu. TPCK eredu teorikoa irakasleen prestakuntzan aplikatetik ondorioztatzen da IKTak baliatzen dituzten hezkuntzako jardunbide onak ekintza konplexu eta multidimentsionalak direla eta horiek oro eskatzen dutela:

• Kontzeptu eta prozeduren irudikapena

eta formulazioa ezagutzea, IKTen bidez ulertu ahal izateko;

• Curriculum edukiak ikasteko IKTak erabiltzen dituzten benetako atazak garatzea;

• Kontzeptuak ikastean gertatzen diren zailtasunak ezagutzea eta IKTek zailtasun horiek gainditzen nola laguntzen duten jakitea, eta

• Kontuan hartzea ikasleek aldeztetik zer dakiten eta irakasgaiaren epistemologia ulertu ahal izateko nola erabil daitezkeen IKTak aldeztetik jakintzaren gainean lagundurik erabili ahal izateko (ikaskuntza esanguratsua).

Kontuan izanik edukiaren “logika epistemologikoak” eta irakaskuntzako metodologiek (irakasleek beren ikaskuntza esperientziatik “herentzia” hartzen dituztenak) eragin handia dutela teknologiaren txertaketaren gainean dituzten jarreretan, beharrezkoa da irakasleen TPCK hasierako prestakuntzako edo garapen profesionaleko “ohiko” programen bitartez garatzea eta ez TPCKren “ageriko” ikastaroen bitartez edo ezaguera-modulu berezien bitartez (Yeh eta beste batzuk, 2013). Hurrengo atalean proposamen globalak aztertuko ditugu eta atal horren hurrengoan adibide zehatz batzuk.

TPCK hala nola IKTetan curriculumak txertatzeko beste eredu batzuk proposamen emankorrak dira, baina, aldi berean, gabezia batzuk ere badituzte. TPCKren kasuan (Tapia, 2012), zenbait egilek nabarmendu dute kontzeptuak ez direla zehatzak eta ez dira gutxi proposamenaren “artifizialtasuna” zalantzan jartzen dutenak edo behar gabeko konplexutasuna duela esaten dutenak (zazpi osagai ditu). Horren ondorioz, TPCKren aplikazioa sortzetik “ukituta” dago. Esate baterako, non bukatzen da constructo bakoitzaren jakintza unea? Kontzeptu horiek argi zehazturik egongo balira, ereduaren eta constructo bakoitzaren irismenak errazago ulertuko lirakeke eta, ondorioz, lehenik, ebaluazio diagnostikoa eta, gero, kalitatezko prestakuntza diseinatzeko lagunduko luke. Horrekin guztia ere, zenbait egilek esparruaren ahalmena balioetsi dute.

4. PRESTAKUNTZAKO ESTRATEGIA GLOBALAK ETA TPACK

TPACK ereduaren inguruan irakasleei prestakuntza emateko erabil daitezkeen estrategia globalei dagokienez, Tapiak (2012), Brush eta Saye segituz (2009), bi orientabide hauek erakusten ditu:

IKT jardunbide onen ereduak aztertzea.

Estrategia honen bitartez prestakuntza jasotzen ari diren irakasleei IKTak ikasgelan txertatzeko esperientzia eraginkorrek –irakasleek garatutakoak– aurkezten zaizkie. Esperientzia horiek prestatzaileek eta etorkizuneko irakasleek aztertzen dituzte, IKTen erabilera eraginkorra ezaugarritzen duten alderdiak identifikatzeko.

Azter daitezkeen alderdiak honako hauek dira:

- Irakasle batek zer behar duen jardueraren edo estrategia ikasgelan praktikan jartzeko eta irakasleak zer alderdi hartu behar dituen bereziki kontuan ikusmolde teknologiko, pedagogiko eta etiko baten ikuspegi hirukoitz batetik abiatuz;
- Irakasle batek edukia lantzeko zer jardueraren mota egiten duen eta edukiak ikasteko zenbateraino laguntzen duen;
- IKTak hezkuntzan sartzeko hezkuntza politiken betetze-maila;
- Irakasleen prestakuntzarako IKT estandarretako baten bat dagoenetz;
- Esperientziaren ondoren espero den ikaskuntza nola ebaluatzen den.

Esperientziak aurkezteko moduak askotarikoak dira: prestatzaileak prestatutako aurkezpenak, esperientzien bideoak erabiltzea, txostenak edo esperientzia eraginkorrek egin dituzten irakasleei egindako elkarrizketak irakurtzea.

Berariazko jardueretan lan egitea teknologia erabiliz. Bigarren estrategia hau da: ikaskuntza jarduerak diseinatzea eta haietan prestakuntza jasotzen ari diren irakasleak ikasle moduan eta ikasteko IKTak erabiltzen dituzten subjektu aktibo moduan aritzea.

Ikaskuntza jarduerak askotarikoak izan daitezke: soilak (esaterako, webgune bat

irakurtzea) edo askoz ere konplexuagoak (aldizkari elektroniko bat sortzea). Horri dagokionez, Harris-ek eta Hofer-ek (2011) irakasgai ezberdinetarako jardueren taxonomia prestatu dute. Jarduera horiek eskola testuinguruetarako prestatu badituzte ere, aldatzeko modukoak dira irakasleen prestakuntzan sartu ahal izateko. Egileek gizarte gaietako irakasleendako berrogeita bi ikaskuntza jarduerak prestatu zituzten eta, Kolb-en(*) ereduari jarraituz, sei kategoria hauetan multzokatu:

- Ezaguera eraikitze jarduerak;
- Ezaguera konbergentea adierazteko jarduerak;
- Ezaguera dibergentea idatziz adierazteko jarduerak;
- Ezaguera dibergentea bisualki adierazteko jarduerak;
- Ezaguera dibergentea kontzeptu bidez adierazteko jarduerak;
- Ezaguera dibergentea produktuetara bideraturiko adierazpen jarduerak; (Harris & Hofer, 2009)

Kategoria hauetako jarduerak bakoitza klaseko estrategia baten zati modura erabil daiteke, prestakuntzaren berariazko unitate baterako edo ikaskuntzaren ibilbide osoaren parte modura.

Beste ikuspegi batetik, Tondeur-ek eta beste batzuek (2011) eredu bidezko ikaskuntza azpimarratzen dute, pre-service prestakuntza proposamenen azterketa kualitatiboan: ezinbestekoa da prestakuntza jasotzen ari diren irakasleek beren prestakuntza esperientzietan teknologia ikasgelan pedagogikoki nola txertatzen den ikusteko eta esperimintatzeko aukera izatea (eredu arrakastatsuek behatuz), eta jardunbide horiek beren kabuz praktikan jartzeko gai izatea. Praktika hauek ezartzeko aukerak indartzen du heziketaren diseinuak irakasleen prestakuntzan zati garrantzitsu moduan duen garrantzia. Prestakuntza jasotzen ari diren irakasleek

beharrezkotzat jotzen dute plangintza didaktikoa egitea teknologia erabiltzen den klaseak emateko.

Illo horretan, TPACK ereduaz egindako ikerkuntzak erakusten du prestakuntza jasotzen ari diren irakasleendako estrategia itxaropentsua dela teknologiek bultzatutako curriculum materialak (bir)diseinatzei aukerak ematea (“talde diana” bati berariazko edukiak irakasteko teknologia erabiltzeari dagokionez, irakasleak erabakiak hartzeko prestatzeari garrantzi handia ematen dion esparrua baita TPACK). Elkarlanerako esperientziak berrikusiz, prestakuntzako irakasleek ere onartu zuten hezkuntzako teknologiaren gaineko beren ezaguerak benetako testuinguruetan aplikatzearen garrantzia.

“Beren lankideen lagunarteak” antsietatea gutxitu eta porrota saihesten dezaketen ikaskuntza giroak sortzen ditu: prestakuntza programen diseinatzaileek nahita sortu behar dituzte esperientziak, zeinetan etorkizuneko irakasleek jarrerak eta trebetasunak beste irakasle batzuekin partekatuko dituzten.


5. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZARAKO BI PROPOSAMEN ZEHATZ.

Begien bistakoa badirudi ere esatea prestakuntza jasotzen ari diren irakasleek teknologian oinarritutako baliabideak diseinatzean beren gaitasuna hobetzen dutela, ez da garrantzirik gabeko baieztapena. Polly-ren ikerlan batean (2011) adierazten da Web 2.0-n oinarritutako hezkuntza baliabideen diseinuan eta sorreran (esaterako, Google Drive-tik edo wikietatik abiatuz) etorkizuneko irakasleek TPACKen berariazko osagaien ezaguera nabarmen sakontzen dutela. Prestatzailearen eta irakasle horien artean gehien trukatu ziren bi osagaiak ezaguera teknologikoak (TK) eta edukiaren ezaguera didaktikoarekin (PCK) zerikusia duten alderdiak –gu-

(*)Egile horren arabera, zenbaitek informazioa hobeki prozesatzen dute informazioarekin zer bait egiten dutenean, alegia, esperimintazio aktiboaren bidez. Beste batzuk, berriz, hobeak dira informazio horren gainean pentsatzen (behaketa gogoetatsua). Bi prozesu horiek ikaskuntza ekintzaren eta hausnarketaren bitartez erregulatzen dute, lau faseko ikaskuntza zikloa egituratzen dutelarik: Esperientzia konkretuaren fasea (EK), Behaketa gogoetatsuen fasea (BG), Kontzeptualizazio abstraktua (KA) eta Esperimintazio aktiboa (EA); fase horietako bakoitza errealitate esperimintatzeko modu batekin dago lotuta eta, beraz, halako moduaren aldeko hautua egiten dutenen ezaugarriekin eta ikasteko lehentasunekin. Lau modu horiek modu konkretua (EK faserako), modu gogoetatsua (BG faserako), modu abstraktua (KA faserako) eta modu aktiboa (EA faserako) dira. Kolb-eren arabera, lau modu horien arteko erlazioak lau ikaskuntza estilo ezartzen ditu: estilo konbergentea, dibergentea, asimilatzailea eta egokitzailea (Kolb eta Kolb, 2005).

retako garrantzitsuenak— izan ziren. Harri-garriki, irakasleek ere esan zuten edukia ikasi zutela (CK) halako jarduerak egin ondoren. Egileak bukatzen du esanez Web 2.0 teknologiek aukera ezin hobeak ematen dituztela irakasleen lanbide ikas-kuntzaren laguntza moduan.

TPACK nola aplikatu erakusten duen lan interesgarria MAGDAIRE proposamena da (*Modeled Analysis, Guided Development, Articulated Implementation, and Reflected Evaluation*). Collins-en *cognitive apprenticeship* proposamen jadanik klasikotik abiatuak (1988), Changek eta bere lankideek lau faseko eredu zikliko bat garatu zuten: azterketa eta modelatua, gidatutako garapena, inplementazio artikulatua eta ebaluazioa (Chang, Chien, Chang, & Lin, 2012). Cognitive apprenticeship-en hurbilketak prestakuntza jasotzen ari diren irakasleei erraztasunak ematen dizkie ikasgelako testuinguru konplexu, ziurgabe eta desegonkorretarako aplikazio baldintzak baliosteko, inplikazioak zenbatesteko eta estrategiak garatzeko. 2. irudian ikus daiteke Adobe Flash tresnan kontestualizatutako eredu bat (prestatzaileen lana hondo ilunean).




2. irud. Prestakuntza eredu ziklikoaren egokitzea (Chang, Chien, Chang, & Lin, 2012).

Era berean, adierazteko modukoa da Chai-ren eta bere lankideen esperientzia (2010) –ikerketaren emaitzek erakutsi zuten ikasleen gaikuntza bikaina–: ikas-kuntza adierazgarrian oinarritutako programa batean etorkizuneko irakasleei prestakuntza eman zien, hiru fasetan bi orduko 12 saio, guztira, 3. irudian ikusten ahal den bezala.

1. fasea (PK). Lehen bost saioetan IKTen bidezko ikaskuntza adierazgarrian erabilitako ikusmolde pedagogikoen gainera, etorkizuneko irakasleak teknologiek lagundutako askotariko ikusmolde pedagogikoen gainera “esperientzien testuinguruan” kokatu zituen; ikusmolde horien guztien helburua ikaslea izan zen (adibidez, problemetan oinarritutako ikaskuntza, proiektuetan oinarritutakoa edo ikerketan oinarritutakoa). Gainera, elkarrekiko irakaskuntza beren lankideekin aplikatu zuten eta IKT ikasgelaren kudeaketaren gainera kasuen eta e-learning-aren bitartez ikasi zuten.

2. fasea (TK). Beste sei saio beren tresna teknologikoen gainera beren ezaguerak garatzeko diseinatu ziren, “ikasgaiak

hobetzeko teknologia” ereduaren bitartez (technology enhanced lessons, TELs). TEL bakoitzean tresna teknologiko baten, haren aukeren, mugen eta erabileren gainera ikasi zuten. Etorkizuneko irakasleak beren irakasgaien arabera lantaldeetan antolatu ziren eta lantalde bakoitzak bere irakaskuntzan garrantzitsuenak diren bizpahiru TEL aukeratu zituen, bere hezitzaile-tutorearekin batera negoziatu ondoren. Esaterako, mapa kontzeptualen gainera TEL batean, irakasleek Cmap-



3. irudia. TPACK ereduaren irakaskuntza pre-service garapenerako, IKTen bitartez (hemendik hartua: Chai eta beste batzuk, 2010).

Tools arakatu behar zuten eta, horretarako, berek aukeratutako gai pertsonal garrantzitsu baten mapa kontzeptuala prestatu behar zuten. Gero beren aukerak eta mugak zein ziren eztabaidatu zuten eta, bukatzeko, ikasgaietarako ideia zaparrada batekin bukatu zuten, tresna ikasleen ikaskuntzarako nola izan daitekeen erabilgarria esanez.

3. fasea (TPACK). Aurretiko ideia hauek “teknologia integratutako klase” batean gauzatu ziren; irakasleen amaierako proiektua zen. Proiektu honek eskatzen zuen berariazko irakasgai batean “teknologia integratutako unitate” bat diseinatzeko, ikusmolde pedagogiko batean oinarritua, ikasle kopuru jakin baterako eta curriculumeko dekretuak kontuan hartuko zituen. Proiektu hau 12. astean aurkeztu zen ikasgelan eta TK, PK, CK eta TPACK-en aplikazioa neurtzen zuten errubrikekin ebaluatu zen.

ONDORIOA

Gaur egun Key-ren hautemateak (2006) indarra izaten segitzen du: curriculumaren helburuak biraketa kopernikar bat behar du –irakasleen garapen profesionala beharrezkoa da, baina ez hori

bakarrik—. Lehenik irakasleen hasierako prestakuntzan aritzen diren erakundeetan beretan (Espainian, unibertsitateetan). Haien misioa eta IKTen gaineko ikuspegia, haien lidergoa, haien prestatzaileen prestakuntza eta Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeekiko lankidetzaren birplanteatu behar dira. Idazki labur honetan azaleratutako ekimenen antzekoak gauzatzeko ari badira ere, oraindik proposamen isolatuak besterik ez dira.

Zoritxarrez, edo aitzitik, hezkuntzako beste alderdi batzuetan bezala, ez dago formula segururik...



ERREFERENTZIAK

Angeli, C., & Valanides, N. (2009). Epistemological and methodological issues for the conceptualization, development, and assessment of ICT-TPCK. *Advances in technological pedagogical content knowledge (TPCK)*. *Computers & Education*, 52(1), 154-168.

Brush, T., & Saye, J. (2009). Strategies for Preparing Preservice Social Studies Teachers to Effectively Integrate Technology: Models and Practices. *Contemporary Issues in Technology and Teacher Education*, 9(1), 46-59.

Chai, C. S., Koh, J. H. L., & Tsai, C.-C. (2010). Facilitating Preservice Teachers' Development of Technological, Pedagogical, and Content Knowledge (TPACK). *Educational Technology & Society*, 13 (4), 63-73.

Chang, C.-Y., Chien, Y.-T., Chang, Y.-H. & Lin, C.-Y. (2012). MAGDAIRE: A model to foster pre-service teachers' ability in integrating ICT and teaching in Taiwan.

In C. P. Lim & C. S. Chai (Eds), *Building the ICT capacity of the next generation of teachers in Asia*. *Australasian Journal of Educational Technology*, 28(Special issue, 6), 983-999. <http://www.ascilite.org.au/ajet/ajet28/chang-cy.html>

Collins, A. (1988). *Cognitive apprenticeship and instructional technology: Technical report*. Cambridge, MA: Bolt Beranek and Newman. <http://www.eric.ed.gov/ERICWebPortal/contentdelivery/servlet/ERICServlet?accno=ED331465>

Devereux, F. L. (1933). *The educational talking picture*. University of Chicago Press.

Harris, J., & Hofer, M. (2011). Activity Types. Urriaren 30ean <http://activitytypes.wmwikis.net-etik/berreskuratutako/wikia>. Hoban, G. F. (2002). *Teacher learning for educational change: A systems thinking approach*. Buckingham: Open University Press.

Kay, R.H. (2006). Evaluating strategies used to incorporate technology into pre-service education: A review of the literature. *Journal of Research on Technology in Education* 38: 383-408.

Kolb, A. Y. & Kolb, D. A. (2005). *The Kolb Learning Style Inventory—Version 3.1 2005 Technical Specifications*. Boston, MA: Hay Resource Direct.

Losada, D., Valverde, J. eta Correa, J. M. (2012). La tecnología educativa en la universidad pública española. *Píxel-Bit. Revista de Medios y Educación*, 41, 133-148.

Loughan, J., Bery, A. eta Mulhall, P (2002, 2nd ed) *Understanding and Developing Science Teachers' Pedagogical Content Knowledge*. University of Melbourne: Sense Publishers.

Mishra, P & Koehler, M. J. (2006). Technological pedagogical content knowledge: a framework for integrating technology in teacher knowledge. *Teachers College Record*, 108, 6, 1017-1054.

Mishra, P, Koehler, M. J. & Kereluik, K. (2009). Looking Back to the Future of Educational Technology, *TechTrends*, 53 (5) September/October 2009.

Polly, D. (2011). Teachers' learning while constructing technology-based instructional resources. *British Journal of Educational Technology*, 42, 6, 950-961.

Shulman, L. S. (1987). Knowledge and teaching: foundations of the new reform. *Harvard Educational Review*, 57, 1, 1-22. Shulman, L. S. (2001). Conocimiento y enseñanza. *Estudios Públicos*, 83, 163-196.

Tapia, H. (2012). *Las Tecnologías de la Información y la Comunicación en la Formación Inicial Docente. Contenidos, modelos y actitudes en la integración de las TIC en un programa de formación*. Doktorego tesia, Nafarroako Unibertsitatea.

Tondeur, J., et al. (2011) *Preparing pre-*

service teachers to integrate technology in education: A synthesis of qualitative evidence, *Computers & Education*, doi:10.1016/j.compedu.2011.10.009

Valverde, J., Garrido, M^a C. & Fernández, R. (2010). "Enseñar y aprender con tecnologías: un modelo teórico para las buenas prácticas educativas con TIC". In J. De Pablos Pons (Koord.) *Buenas prácticas de enseñanza con TIC [lineako monografikoa]*. *Revista Electrónica Teoría de la Educación: Educación y Cultura en la Sociedad de la Información*, 11 (1) Univ de Salamanca, 203-229. [Kontsulta eguna: 2013/10/30]. http://revistatesi.usal.es/~revistas_trabajo/index.php/revistatesi/article/view/5840/5866

Yeh, Y.-F., Hsu, Y.-S., Wu, H.-K., Hwang, F.-K. and Lin, T.-C. (2013). Developing and validating technological pedagogical content knowledge-practical (TPACK-practical) through the Delphi survey technique. *British Journal of Educational Technology*. doi: 10.1111/bjet.12078

**Ángel Sobrino dk.,
Hugo Tapia dk..**

Consejo Escolar de Navarra
Junta Superior de Educación



Nafarroako Eskola Kontseilua
Hezkuntzako Batzorde Nagusia